

TXOSTENA

KOLONBIAKO GIZA ESKUBIDEEN EGOERA BEHATZEKO ETA JARRAITZEKO EUSKADIKO II. ORDEZKARITZA

2014ko urtarrilaren 27tik otsailaren 3ra



Hau da txosten honen egilea:

Leire Lasa, Eragin eta Gizarte Partaidetza taldea



Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programa



Bilbo, 2014

EDUKIEN AURKIBIDEA

SIGLAK	1
ESKERTZA	2
AURKEZPENA.....	3
KOLONBIAKO GIZA ESKUBIDEEN EGOERA BEHATZEKO ETA JARRAITZEKO EUSKADIKO II. ORDEZKARITZA.....	5
OSAERA.....	5
IKUSKATUTAKO LURRALDEAK ETA IZANDAKO BILERAK	6
TESTUINGURUA.....	9
OROKORRA.....	9
CAUCAKO DEPARTAMENDUA	13
ANALISI-ELEMENTUAK.....	15
BAKE-PROZESUA.....	15
BIKTIMAK ETA LURRAK	17
GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK	21
EGOERA ESPEZIFIKOAK	25
HONDURASKO (MORALES) ETA CERRO TIJERASKO (SUAREZ) KABILDO INDIGENAK - CAUCA	25
TESTUINGURUA	25
KOMUNITATEEN ERRESISTENTZIARAKO ETA ERAIKUNTZA ALTERNATIBORAKO PROPOSAMENAK	29
KOLONBIAKO ERAKUNDE PUBLIKOEN ERANTZUNAK	31
JUSTIZIAREN ETA BAKEAREN ALDEKO ELIZ ARTEKO BATZORDEA.....	32
TESTUINGURUA	32
LAGUNDUTAKO PROZESUEN ERAIKUNTZA-ALTERNATIBAREN ETA ERRESISTENTZIAREN PROPOSAMENAK	40
KOLONBIAKO ERAKUNDE PUBLIKOEN ERANTZUNAK	41
ONDORIOAK.....	43

SIGLAK

ACIN: Caucaho Iparraldeko Kabildo Indigenen Erakundea
ACNUR: Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandataria
ASOAESCA: Esther Cayapu Elkarte Agroekologikoa
AUC: Kolonbiako Autodefentsa Batua
BACRIM: Nabarmentzen Hasiak Diren Talde Kriminalak
CIDH: Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra
CIJP: Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordea
CoIDH: Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra
CONPAZ: Lurraldeetan Bakea Eraikitze Komunitateak
CRIC: Caucaho Eskualde Kontseilu Indigena
CVC: Caucaho Harana Eskualdeko Korporazio Autonomoa
DANE: Kolonbiako Estatistika Administrazio Saila
DAS: Segurtasunerako Administrazio Saila
NZH: Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa
ELN: Nazio Askapenerako Armada
EPL: Herri Askapenerako Armada
EPSA: Pazifikoko Energia Enpresa
FARC-EP: Indar Armatu Iraultzaile Kolonbiarrak
INCODER: Landa Garapenerako Kolonbiako Institutua
IIRSA: Hego Ameriketako Lurralde Azpiegitura Integrazteko Ekimena
MOVICE: Kolonbiako Krimenen Biktimen Mugimendua
NBGEGKB: Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa
LANE: Lanaren Nazioarteko Erakundea
ONIC: Kolonbiako Erakunde Nazional Indigena
OPIC: Kolonbiako Herri indigenen Erakundea
PAARI: Arreta, Laguntza eta Erreparazio Osorako Plana
SAT: Alerta Goiztiarreko Sistema
SIJIN: Ikerketa Kriminalerako Saila (Polizia Nazionala)
NAFTA: Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Ituna
UNP: Babeserako Unitate Nazionala

ESKERTZA

*Amets, irribarre, oihu eta negar egiten dugunean,
orduan tokatzen zaigu lasterka irtetea mundu gizatiarrago baten bila,
bakea eta lasaitasuna egongo diren leku batera, zeinetan anai-arreba gisa onartuko gaituzten.
Nire herriaren mina, hatsik gabe uzten nauen min hori sentitzen dudalako egiten dut amets.
Baina min horrek borrokan jarraitzeko indar handiagoa ematen digu, horrenbeste odol
ikustearen amorruz,
nire odolaren odola, baina, hala ere, maitatuz.
Elkarrekin mugak hautsi genituen, izotza urtu genuen.
Guk bakarrik begiraten diogu munduari beste begirada batekin: amets egiten dugu, maitatu
egiten dugu eta gizakiok bezala pentsatzen dugu,
kapitalismoa jelsiaz hiltzen den bitartean.*

Deyanira Soscué Zambrano

Aldi Batez Babesteko programa eragin politikodun babes tresna bat da, jazarpen eta mehatxu testuinguruetan giza eskubideak babesten lan egiten duten defendatzaileentzat. Horretan ahalegintzen gara Euskal Autonomia Erkidegoan babesten ditugun aldian, eta ordezkartzak lurra bisitatzea proposatzen dugu.

Era berean, modu bat da euskal gizarteari erakusteko nolako egoeran aritzen diren giza eskubideen defendatzaileak liskarrak izaten diren tokietan. Eguneroko lan hori, duintasun eta ausardia laudagarri egindakoa, ekarpen baliagarria da gure berradiskidetze-prozesuetarako eta -memoriarako.

Kolonbiak ez du hotz uzten. Herria jasaten ari den mina ikusita, indarkeria eta zigorgabetasun urte luzeen ondoren, biktimak, giza eskubideen defendatzaileak eta buruzagi komunitarioak ez daude ahazteko prest, eta bakea eta bizitza duina lortzeko guneak sortzearen alde ari dira.

Giza eskubideen aldeko erakunde eta instituzio publiko askok eskaini digute beren denbora bai Caucan bai Bogotan izan garen honetan.

Eskerrik asko, giza eskubideen aldeko erakundeei, beren minak, salaketak eta bake-esperantzak gurekin partekatzeagatik. Eskerrik asko, guardia indigenei, Moralesko udalerritik Hondurasko Babeslekura laguntzeagatik.

Eskerrik asko, instituzio publikoei, beren atek zabaltzeagatik, gure galderei erantzuteagatik eta jasotako informazioa egiaztatzeagatik.

Eskerrik asko, bereziki, Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordeari eta Hondurasko eta Cerro Tijerasko kabildoei, haien babes bikainagatik, haien antolamendu ahaleginengatik eta bizitzaren eta lurraren defentsan egindako lan nekaezinagatik.

Eta, azkenik, eskerrik asko, Deyanira Soscué Zambranori eta Gabriel Santiago Mera Montillari, beren gizatasunagatik eta zintzotasunagatik, justizia soziala ekarriko duen bakearen alde egindako apustu pertsonal eta kolektiboagatik eta beste mundu bat posible dela elkarrekin amesteagatik.

AURKEZPENA

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak martxan du, 2011tik, *Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko programa*. Programa horren barruan, gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan hartzen ditu jazarpena eta mehatxuak jasaten dituzten gizarte-erakundeetako pertsonak edo horren arriskuan daudenak, giza eskubideen aldeko defentsan jarduteagatik. Nazioartean dituen sareak zabaltzeko eta indartzeko asmoz, ekintza hauek proposatzen dira:

1. Ikuspegi psikosoziala: Babesaren ikuspegi integrala lantzen du, eta honako alderdi hauek sartzen dira: alderdi pertsonalak, antolamenduzkoak eta politikoak; indarkeria politikoaren inpaktuengatik arreta berezia behar duten pertsonentzako laguntza psikoterapeutikoa; eta babespean dauden pertsonen zainketa, aldi batez herrialdetik irten eta sartu behar izateagatik.
2. Agenda politikoa: Programa hau gauzatzeko, politikoki eragin beharko da; aldi baterako babesak, bestela, ez du zentzu osoa izango. Hau da Euskal Autonomia Erkidegoko egonaldian egindako lanaren helburua: pertsona horiek eta haien erakundeak instituzionalki eta politikoki babesteko nazioarteko sareak zabaltzea eta indartzea. Praktikan, sare horiek babes-mekanismo bezala jarduten dute; hala, jendeak modua du lurraldean giza eskubideak babesten jarraitzeko. Horretaz gainera, programak balio du euskal herritarrei eta bertako erakunde publikoei —berdin Espainiakoei eta Europakoei ere— erakusteko zein den giza eskubideen defentsan lanean aritzen diren erakundeen mehatxu egoerak eta zein diren haien aldarrikapenak.
3. Prestakuntza-agenda: Haien kezkek eta interesak zein diren ikusita, asmoa da prestakuntza espezializatua ematea giza eskubideen defentsaz eta sustapenez. Egin duten lanagatik aitortza jaso duten pertsonak direla kontuan izanda, txostengile gisa ere hartuko dute parte esparru akademikoetan eta sozialetan.

Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza ari da programa zuzentzen, eta CERA-Euskadi ari da koordinazio lanetan, Kolektiba Colombia sarearen barruan¹. Hautaketa Batzordearen bitartez, honako hauek ere sartuta daude programan: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Kanpoko Ekintza Zuzendaritza, Hegoa Institutua (Euskal Herriko Unibertsitatea), Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (Deustuko Unibertsitatea), Euskal Autonomia Erkidegoko GGKeren Koordinatzailea eta Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarleen Foroa. Gainera, Ansur Kolektiboaren laguntza du, segurtasunarekin eta babesarekin zerikusia duten kontuak kudeatzeko.

Programan datorren bezala, babestuta dauden pertsonak itzuli direnean, erkidegoko ordezkaritza bat joan da Kolonbiara 2014ko urtarrilaren 27tik otsailaren 3ra, egoera pertsonal eta komunitarioaren jarraipena egiteko, segurtasun-sarea indartzeko eta gobernuaren, legebiltzarraren eta antolatzaileen laguntza agerian jartzeko.

Txosten honetan, lau zatitan ematen dira bisitako konturik esanguratsuenak. *Testuingurua* atalean, herrialdearen eta Caucako departamenduaren egoeraren ikuspegi orokorra ematen da. Giza eskubideen erakundeetatik eta instituzio publikoetatik jasotako informazioa bi ataletan atxikita doa: *Analisi-elementuak*, gaikako hiru atal sendotan garatuta (*Bake-prozesua*, *Biktimak eta lurrak*, *Giza eskubideen defendatzaileak*); eta *Egoera espezifikoa*, 2013an Aldi Batez Babesteko Programan sartuta dauden pertsonen erakundeak nola dauden aztertzen

¹ Kolektiba Colombia taldea euskal erakundeen aliantza bat da, Kolonbiaren alde egiteko giza eskubideen eta elkartasunaren esparruan. Honako hauek osatzen dute: Paz con Dignidad, Paz y Solidaridad, Posada de los Abrazos eta CEAR-Euskadi.

duena. *Ondorioak* izeneko azken atalean, Euskal Ordezkaritzaren azterketa, balorazioak, kezkak eta gomendioak datoz.

Gure helburua da erakustea nola dauden hango giza eskubideen defendatzaileak, eta haien babes- eta segurtasun-sarea zabaltzen laguntzea, Kolonbiako erakunde publiko eta giza eskubideen erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako Estatuko erakundeen artean.

KOLONBIAKO GIZA ESKUBIDEEN EGOERA BEHATZEKO ETA JARRAITZEKO EUSKADIKO II. ORDEZKARITZA

Osaera

EUSKO JAURLARITZA

Monika Hernando Porres (Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria)

Iker Del Rio Lahidalga (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia)

M. Pilar Diez Arregi (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia)

EUSKO LEGEBILTZARREKO GIZA ESKUBIDEEN, BERDINTASUNAREN ETA HERRITARREN PARTAIDETZAREN BATZORDEA

Amaia Arregi Romarate (Euzko Abertzaleak)

Diana Carolina Urrea Herrera (EH Bildu)

Jesus M. Zaballos de Llanos (Euskal Sozialistak)

Juan Carlos Areizaga Hernandez (Ilegalaria)

HAUTAKETA-BATZORDEA

Marla Oianguren Idigoras (Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarleen Foroa)

Karlos Perez Alonso de Armiño (Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea)

KOLEKTIBA COLOMBIA

Blanca Lucia Valencia (Paz con Dignidad)

Patricia Barcena Garcia (CEAR-Euskadi)

Leire Lasa Fernandez (CEAR-Euskadi)

ORDEZKARITZA LAGUNTZA

Gabriel Santiago Mera Montilla (Justiziaren eta Bakearen aldeko Eliz Arteko Batzordea)

Ikuskatutako lurraldeak eta izandako bilerak

CAUCAKO DEPARTAMENDUA	
	Hondurasko Babeslekua (Morales)
Erakunde sozialak/ kolektiboak	<ul style="list-style-type: none"> • Cerro Tijerasko Kabildo Indigena (Suarez, Cauca) • Hondurasko Kabildo Indigena (Morales udalerria, Cauca) • Zaindari Indigenak • Mesongo Hezkuntza Institutua (Ineim) • Cauca Eskualde Kontseilu Indigena (CRIC) • Nomadesc Elkartea
Erakunde publikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Moralesko Personera
	Popayan
Erakunde sozialak/ kolektiboak	<ul style="list-style-type: none"> • Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordea • Cauca Eskualde Kontseilu Indigena (CRIC) • Kolonbiako Mendigunea Integrazteko Batzordea (CIMA) • Langileen Zentral Unitarioa, Cauca (CUT, Cauca) • Bizitza duin baten aldeko lurraldeak • Zerbitzu publikoen erakundea • Cauca Bizitzaren eta Giza Eskubideen Aldeko Sarea • Inzako eta Tierradentroko Nekazarien Erakundea (ACIT) • Caucaren Pazifiko Aldeko Komunitate Kontseiluak (Cococauca) • Erakunde Afrokaukarren Batasuna (Uoafroc) • Kolonbiako Krimenen Biktimen Mugimendu Nazionala, Cauca kapitulua (Movice) • Hiri eta Landa Garapenerako Erakundea (Ordeurca) • Eskualdeko Bake Eremua (ERPAZ) • Francisco Isaias Cifuentes Giza-Eskubideen Sarea • Aberriaren martxa • Nekazarien Elkarriketarako Mahaia (MIA) • Laguntza Solidarioaren Nazio Elkartea (ANDAS) • Justiziaren eta Duintasunaren Korporazioa • Comunitar

	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen Bide Bakegilea • Cajibioko Nekazarien Mugimendua • Herrien Biltzarra
Erakunde publikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Caucako Gobernazioa (Gobernurako eta Kudeaketa eta Partaidetza Sozialerako Idazkaritza; <i>Giza eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren programa</i>) • Herriaren Defentsa Erakundea, Cauca • Caucako Eskualde Prokuradorea • Popayango Alkatetzaren Ordezkarria • Armadaren 29. brigada • Polizia Nazionala (Giza Eskubideen Aldeko Bulegoa) • Popayango Polizia Metropolitarra
	Bogota
Erakunde sozialak/kolektiboak	<ul style="list-style-type: none"> • Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordea • (ANDAS) Laguntza Solidarioaren Nazio Elkarte • Preso Politikoen Elkartasun Batzordea Fundazioa (FCSP) • Giza Eskubideen Aldeko Batzorde Iraunkorra (CPDH) • Bakearen Aldeko Batzarra • DIAL • Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) • Kolonbia-Europa-AEB koordinazioa • Kolonbiako Krimenen Biktimen Mugimendu Nazionala (Movice) • Askatasuna Korporazio Juridikoa • <i>Somos defensores</i> programa • Bakearen Aldeko Unibertsitate Sarea • Herrien Biltzarra • Eliza Presbiterianoa • Aberriaren martxa • Bakearen Aldeko Kolonbiarrak • Emakumearen Etxea • Kolonbiako Gizarte Mugimenduen eta Erakundeen Koordinazioa (Comosoc)
Erakunde	<ul style="list-style-type: none"> • Memoria Historikoaren Zentro Nazionala

publikoak	<ul style="list-style-type: none">• Kolonbiako Fiskaltza Nagusia• <i>Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren programa presidentziala</i>• Biktimen Laguntza eta Ordaintza Osorako Unitatea• Babeserako Unitate Nazionala (UNP)• Biktimen, Bakearen eta Adiskidetzearen Aldeko Goi Kontseilaria (Bogotako Alkatetza)• Espainiako enbaxada• Garapenerako Kooperazioaren Espainiako Agentzia (AECID)
------------------	---

TESTUINGURUA

OROKORRA

Kolonbiako Estatistika Administrazioaren (DANE) datuen arabera, Kolonbiak 44.725.543 biztanle ditu (% 49 gizonak eta % 51 emakumeak); horietatik % 85,94 mestizoak dira, % 10,62 beltzak, % 3,43 indigenak eta % 0,01 rom herrikoak edo ijitoak.

Guztira, 82 herri indigena daude aitortuta, eta, gaztelaniaz gainera —hizkuntza ofiziala—, beste 60 hizkuntza mintzatzen dira.

Kolonbia aberatsa da natura-baliabideei dagokienez, baina aberastasun-banaketan desoreka handiena dutenetakoa ere bada.

Herrialdeak pairatzen duen gatazka politiko, sozial, ekonomiko eta armatuak 60 urte baino gehiago egin ditu dagoeneko —Latinoamerikako luzeena da—; horregatik, zifra kezagarriak dira. Memoria Historikoko Zentro Nazionalak, honako hau dio *¡Basta ya! Colombia, Memorias de Guerra y Dignidad* txostenean: 220.000 pertsona inguru hil dira, 1958ko urtarrilaren 1etik 2012ko abenduaren 31 bitarte (hamarretik zortzi, zibilak).

Biktimen Arretarako eta Erreparazio Osorako Unitateak —hemendik aurrera, Biktimen Unitatea—, 2014ko ekainaren 1ean, 6.541.351 pertsona kontatu ditu gatazka armatuaren biktimatzat. Horietatik, 135.863 bortxazko desagerpenak izan dira. Historikoki, jazarpen politikorako eta kontrol sozialerako erabili izan da bortxazko desagerpena. NBEen arlo horretan diharduen lan-taldeak egina du txostena, eta Giza Eskubideen Kontseiluaren pean ezarria du. Txostenean azpimarratu duenez, "Kolonbian etengabeko praktika da oraindik" eta "ia kasu guztiak zigortu gabe daude"².

Giza Eskubideen aldeko Amerika Arteko Gorteak adierazi duenez (Coidh), Kolonbian zigorgabetasuna "egiturazkoa eta sistemikoa" da³. %98ra iristen dira indizeak, eta indartu ere egingo dira Foru Penal Militarra zabaltzea onartzen badute, giza eskubideen erakundeek eta Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak (OHCHR) adierazi dutenaren arabera⁴. Foruaren helburua da Zuzenbide Penal Militarrek epaitzea indar publikoaren erantzukizuneko giza eskubideen bortxaketak. Gorte Konstituzionalak gelditu eta gero —forma-akatsengatik—, Defentsa ministroak iragarri du proiektua berriz hartzea erabaki duela.

Azken urteetan, exekuzio estrajudizialerako batzordearekin izan dute zerikusia bortxazko desagerpenetako askok. Nazioarteko Zigor Auzitegiak 2012ko azaroaren tarteko txostenean adierazia du "oinarri nahikoa" dagoela erakusten duena "positibo faltsu" esaten zaien horiek —hau da, indar publikoak bahitutako eta hildako pertsonak eta gudu zelaian hildako gerrillarizat hartuak— "gutxienez indar armatuetako zenbait brigadak hartutako erabaki politikoaren ondorioz" hil zituztela, eta, beraz, "estatu politikaz" ari garela.

Bestalde, Kolonia da barne-lekualdatze gehien izan duen munduko lurraldea. Biktimen Unitateak dio bortxaz lekualdatu diren 5.632.062 lagun dituela zenbatuta. Haren erregistroan dator 55.157 pertsona lekualdatu beharrean egon zirela 2013ko urtarriletik urrira bitarte.

Gatazka areagotuta, beraz, biktima gehiago sorrarazten dira egunero, eta ondorio dramatikoak dauzka. Batez ere, emakumeengan: zenbakiei dagokienez lekualdatutako herritar asko eta

² <http://www.elespectador.com/noticias/judicial/articulo-330592-onu-denuncia-continuacion-de-desapariciones-forzadas-colombia>

³ Colombia: Continúa la inseguridad para los defensores de Derechos Humanos, en particular los líderes de comunidades desplazadas. Misio-txostena, 2012ko maiatza. Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Behatokia, Torturaren Aurkako Mundu Erakundea (OMCT) eta Giza Eskubideen Aldeko Nazioarteko Federazioak (FIDH) batera egindako programa.

⁴ Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Agentzia. *Giza eskubideen egoera Kolonbian*. Urteko Txostena 2013.

asko emakumeak direlako eta, kualitatiboki, lekualdatze horiek haiengan inpaktu handiagoa dutelako⁵. Gainera, sexu-indarkeria igo egin da neurri kezkarria, eta, zenbaki ofizialik ez badago ere, *Violaciones y otras violencias: Saquen mi cuerpo de la Guerra* ikerketan datorrenez —bederatzi urteko aldia hartzen du (2001-2009)— urtean batez beste 54.410 emakumek jasan dute sexu-indarkeria Kolonbian. Zenbaki horiek berretsi egiten dituzte Gorte Konstituzionalaren ondorioak; izan ere, ikusten denez, "Kolonbiako gatazkan ohiko praktika sistematikoa eta orokortua da" indarkeria mota hori.

Jendea lekualdatzera bortxatzen dutenean, horren atzean sarritan lurrez jabetu nahia eta lurraldearen kontrola egoten dira, dela helburu estrategiko-militarreatatik edo dela soilki helburu ekonomikoengatik. Lurra Kolonbiako gatazkaren erdigune nagusia da. Desplazaturako biztanleen % 52,2ri lurra indarrez kendu zizkieten edo horiek uztera behartu zituzten. Zenbaki ofizialen arabera, azken hogeita hamar urteetan, lekualdatutako herritarrek sei milioi eta erdi hektarea baino gehiago utzi behar izan dituzte; horietako %15 nekazaritzari eta abelazkuntzari zegozkien. Bestelako kalkulu batzuen arabera, Kolonbiako Krimenen Biktimen Mugimendu Nazionalak (Movice) dio lur-gabetze hori hamar milioi hektareakoa ere badela⁶.

Nekazaritzako erregaien laborantza intentsiboa denez eta garraiorako eta energia-produkzioarako azpiegitura handiak eraiki direnez, hutsarazi egin dituzte lehendik hor zeuden herrien lurraldeak (komunitate indigenenak, nekazarienak, afrikar etorkioenak). Jendea lurrez gabetzeko metodo bat baino gehiago erabiltzen dituzte: salerosketa irregularrak, auzi faltsuen bitartez egindako transferentzia judizialak —lekuko faltsuak erabilia—, indarrez joatera behartzea eta lekuz aldaraztea, eta abar. Askotan, pertsonak ez dira joaten indarkeria dagoelako; joanarazteko erabiltzen da indarkeria⁷.

Espainiako Estatuak da Europako estatuetan Kolonbian diru gehien inbertitzen ari den herrialdea. Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa multinazional asko negozioak dituzte Kolonbian ekonomiaren sektore estrategikoetan: hidrokarburoak, elektrizitatea, eraikuntza, banketxeak, telefonia, aseguruak eta komunikabideak.

Alde horretatik, konstituzioan hala aginduta badator ere, herri indigenei eta afrikar etorkia duten komunitateei oraindik ez diete kontsultatzen beren lurralde kolektiboetarako pentsatuta dauden proiektuez. ONIC Kolonbiako Indigenen Erakunde Nazionalaren iritziz, eskubide hori ez beteta, herri indigenen erdia baino gehiago galzorian jartzen da.

2011ko ekainaren 10ean onartu zuen Juan Manuel Santosen gobernuak 14/48 legea, biktimei eta lurra itzultzeari buruzkoa; haren bidez, neurriak ezarri ziren barne-gatazka armatuaren biktimen arretarako, laguntzarako eta erreparazio osorako, eta beste xedapen batzuk idatzi ziren. Lege horrekin, Biktimen Unitatea, Memoria Historikoaren Zentro Nazionala eta Lurra Itzultzeko Unitatea sortu ziren. Geroztik, gutxi gorabehera 60.000 hektarea itzuli zaizkie haien jabeen herrialde osoan.

Horrela trantsizio-justizia egingo balitz bezala aurkeztu zuten proiektu hura, baina *biktima* kontzeptuari denbora-muga ezarri zitzaion, eta kanpoan utzi zituen 1985eko urtarrilaren 1a baino lehenagoko biktimak eta 1991ko urtarrilaren 1a baino lehenago haien lurretatik bota zituztenak.

Alde horretatik, OHCHRek 2013ko txostenean biltzen duen bezala, ugaritu egiten dira hilketak, mehatxuak eta lurra itzultzeko prozesuetan parte hartzen dutenen aurkako erasoak. Human

⁵ Gema Fernandez Rodriguez de Lievana, Pablo Sainz Rodriguez *Pampa*, Eduardo Romero Garcia, Raquel Celis Sanchez, Leire Lasa Fernandez, *¿Qué hacemos para conectar la crítica a la movilidad en el capitalismo con la lucha contra las políticas migratorias y las fronteras?*, Akal, 2013.

⁶ CEAR-Euskadi. *Contra el despojo. Capitalismo, degradación ambiental y desplazamiento forzado. Análisis de los casos de Colombia y Ecuador*. Bilbo, 2012.

⁷ Idem

Rights Watchek⁸ dio, azken urte eta erdian, 520 pertsonak mehatxuak salatu dituztela lurralde itzultzeko erreklamatzeko aritu direlako eta, hala ere, Fiskaltzak ez diola inori kargurik leporatu ikerketa bakar batean ere.

Somos Defensores programaren arabera, giza eskubideen 366 defendatzailek erasoak jasan zituzten 2013an (%77 gizonak eta %23 emakumeak). Horietatik, 78 hil egin zituzten (67 gizon eta 11 emakume). Aurreko urtearen aldean, % 2,4ko igoera da; azken hamar urteetako zenbakirik larrienak dira. Bereziki da kezagarria emakume buruzagien hilketak kopuruak nola egin duen gora.

Goako joera dago 2014ko lehen hiruhilekoan ere. Urtarril eta martxo bitartean, 96 eraso erregistratu dira —2013an, tartean, 45 eraso izan ziren—. Azpimarratzekoak dira: 54 mehatxu —2013an, hogeita izan ziren—, hamasei hilketak —2013an, hamabost— eta 11 atentatu —2013an, sei izan ziren—.

OHCHRek dio eraso gehienak "desmobilizazioen ondorengo taldeei" egotzen zaizkiela. Somos Defensores programak ustezko kaltegiletzat hartzen ditu talde paramilitarrak kasuen %50ean, talde ezezagunak kasuen %33an, Indar Publikoen jarraitzaileak —Kolonbiako armada eta Polizia Nazionala, besteak beste— kasuen %14an eta gerrillak kasuen %3an.

Korrelazioa dago erasoaren igoeraren eta gizarte-mobilizazio gehien dagoen garaiaren artean (abuztuaren eta urriaren).

2013: Gizarte mobilizazioen urtea

2013ko abuztuaren 19an, Nekazarien eta Herritarren Lanuzte Nazionala hasi zen, Errepublikako Presidenteak ez zuelako hitz egin nahi izan gizarte-eragileekin landa-krisiari buruz; izan ere, Merkataritza Libreko Itunak gogor jo eta are gehiago okertu zuen egoera.

Giza eskubideen erakundeek dokumentatu egin zituzten gobernuak protesta sozialak geldiarazteko erabili zituen erantzunak: polizia-basakeria, liderrak iraintzea, manifestariak epaitzea eta indarra erabiltzarekin mehatxatzea. Aste batzuen buruan, hemeretzi hildako zenbateraino ziren, 600 zauritu eta dozenaka atxilotu eta kartzelatu.

Azkenean, gobernuak negoziatzeko prest agertu zen. Hala ere, nekazaritzako eta gremioko eliteekin adostuta, gobernuak nekazaritza-mugimendua politikatik kanpo utzi zuenez, nekazariak nekazarien, etnien eta herrien goi-bilerara deitu zuten, eta, martxoaren 15etik 17ra, herrialde osoko eskualde guztietatik etorritako 30.000 pertsona bildu ziren hartara, beren gobernu propioaren figura kolektiboak errespetatu zitezkeen eskatzeko eta komunitate nekazarien, indigenen eta afrokolonbiarren lurraldeak babesteko beharra ikusarazteko.

Justiziaren eta Bakearen Legea

Legea ezarri eta zazpi urtera, ez ditu esperotako emaitzak izan talde paramilitarren desmobilizazioei buruzko 2005eko 975 Legeak, hau da, Justiziaren eta Bakearen Legea deritzonak. 2013ko urtarrilean hamalau sententzia baino ez daude. Prozesuak egia erakusteko eskubideari dagokionez aurrerapen handiak ekarri dituen arren —fiskaltzaren datuen arabera, 51.906 biktime eragin zituzten 39.546 krimen aitortu zituzte paramilitarrek; horien artean, hilketak 25.757, eta sarraskiak 1.046—, esparru legal hori, egitez, amnistia bat izan da desmobilizatu ia guztientzat eta kondenatu apurantzat; izan ere, bost eta zortzi urte bitarteko zigorrak ezarri zaizkie, gizateriaren aurkako delituetan izandako erantzukizunengatik⁹.

Azken urteetan agerian geratu da garai bateko talde paramilitarrekin bat datozeela gobernuak Bacrim deritzanak (Nabarmentzen Hasi Diren Talde Kriminalak). Kolonbiako 31 eskualdetako

⁸ Human Rights Watch, *Informe Mundial 2013, capítulo Colombia*. 2013ko urtarrila.

⁹ ODHACO (Giza Eskubideen Aldeko Nazioarteko Bulegoa), 2013ko apirila; ACNUDH, Kolonbiako Giza Eskubideen Egoera, 2013ko txostena.

406 udalerritan nagusi dira talde kriminal horiek, eta haien buruan, Kolonbiako Autodefentsa Batuetako (AUC) antzinako buruzagiak daude. Kolonbia osoan ekintzak egiteko gaitasun operatibo handia dute.

Bake Elkarrizketak

Kolonbiako Gobernuaren eta Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileen (FARC-EP) elkarrizketek markatu dute Kolonbiako agenda politiko eta soziala. Elkarrizketa horiek Oslon hasi ziren (Norvegia), 2012ko urriaren 18an, eta egun, Habanan egiten ari dira (Kuba).

Agendak bost eztabaidagai ditu: *Nekazaritza-garapen integralaren politika, Parte-hartze politikoa, Gatazkaren amaiera, Legez kanpoko drogen arazoaren konponbidea eta Biktimak.*

Gaur egun, akordioak lortu dira nekazaritza-garapen integralaren politikan, parte-hartze politikoan eta legez kanpoko drogen arazoaren inguruan. Washingtonen Latinoamerikako Gaien Bulegoan egindako *Poner fin a 50 años de conflicto* txostenaren arabera, litekeena da bi alderdiak ados jartzea, baina negoziazioei bide luzea geratzen zaie oraindik egiteko. Adibidez, oraindik ez dago adostasunik, ahal izatekotan, Asanblada Nazional Konstituziogile bat sortzearen inguruan, ezta Erreferendum baten bitartez akordioak onartzearen inguruan ere.

Gizarte Zibilak, berriz, hainbat eskari egin ditu, justizia soziala ekarriko duen bake iraunkorra lortzeko: bi aldeek su-etena egitea; estatuaren funtzionamendu-egitura aldatzea; zigorgabetasunaren aurka borroka egitea; paramilitarismoa desegitea; eta Egiaren Batzordea sortzea, Kolonbiako historiaren gutxieneko bertsio bateratua iristeko. Horrek ez luke Kolonbiako Gobernuaren betebeharra ordezkatzeko, herrialdean jasandako indarkeriaren arduradun nagusiak epaitzeko.

Gainera, Kolonbiako Gobernuak iragarri du berriki hasi duela, gizarte zibilak babestuta, elkarrizketa-prozesua Askapen Nazionalerako Armadaren (ELN) eta Askapenerako Herri Armadaren (EPL) gerrillekin.

Ekainaren 15ean, igandearekin, presidentetza-hauteskundeen bigarren itzulian, Juan Manuel Santos Kolonbiako presidente hautatu zuten berriz ere, Oscar Ivan Zuluaga hautagai uribistaren aurretik. Bigarren itzulian haren hautagaitza babestu dute ezkerreko alderdietako sektore handi batek, gizarte-mugimenduek, sindikatuek, artistek, intelektualek eta Santosen gobernuarekin beti era kritikoa jokatu dutenek, uribismora itzultzea saihesteko eta Habanako elkarrizketekin jarraitzeko.

Proposamenak gizarte zibiletik

Kolonbiak gizarte-mugimendu sendoa du, eta giza eskubideen aldeko erresistentzia-prozesu nabarmenak garatu ditu; prozesu horietan, gobernu nazionaleri hainbat proposamen eta aukera aurkeztu dizkiete, justizia soziala aintzat hartuko duen bakea lortzeko.

CAUCAKO DEPARTAMENDUA¹⁰

Caucako departamendua Kolonbiako mendigunean dago, eta Ozeano Bareraino iristen da. Bioaniztasun handikoa da, eta han daude Kolonbiako ibairik handienak. Bertan jaiotzen dira Cauca, Magdalena, Caqueta eta Patiako ibaiak. Horrek egiten du alderdi hura garrantzi handiko, erreserba bioenergetiko handia baitu.

DANeren arabera¹¹, Cauca 1,2 milioi biztanleetatik %22 afrikar etorkikoak dira, eta %21 indigenenak. Lurralde honetan etnia eta kultura asko daude; ofizialki aitortuak zortzi. Kolonbia osoan ez dago han bezainbeste indigena.

Bigarren departamendu pobreena da, eta muturreko pobrezia duen lehena. Kolonbiako lurrik malkartsuenak ere hor daude. Hala ere, energia elektrikoa Latinoamerikako garestiena da, eta gasolina Kolonbiako garestiena. Gainera, Choco departamenduaren atzetik, langabezia-indize handiena du.

Bertako biztanle gehienak nekazariak dira (%67); horregatik, gatazkaren muina —lur-jabetzarena— sufritzen dute horko biztanleek, indarkeriak zuzenean eragiten baitie. Hori, ekonomia- eta erauzketa-interesekin lotuta dago, eta irauteko arazo larria da. Gainera, lurren titulazio-politika dela medio, Landa Garapenerako Kolonbiako Institutua (Incoder) gatazka sortzen ari da gizartean, bere lanarekin; esaterako, nekazarienak izan diren lurak indigenei ari da ematen.

Kolonbiako Gobernuarentzat, meatzaritza ustiatzeko eremu nagusia da departamendu hau, eta helburuetako bat du inbertsiogileen konfiantzari eustea, 2007ko Lurralde Kontsolidaziorako Plan Nazionalaren bitartez. Planean ekintza herritar-militarrak datoz. Estrategia militar horren barruan sartu nahi dute gizarte zibila, lurraldea kontrolatzeko neurri berriak martxan jartzeko; besteak beste, kontrainteligentzia-ekintzak eta azpiegituren babesa.

Caucako Bizitzaren eta Giza Eskubideen Aldeko Sareak esaten du gatazka armatua areagotu bada Anglo Gold Ashanti, Cerromatoso eta Carboandes meategi multinazionalengatik areagotu dela; enpresa horiek esploraziorako 1.200 titulu baino gehiago eskatu dituzte (1.600.000 hektarea baino gehiago, lurraldearen %56). Horretaz gainera, azpimarratu du lurraldeen militarizazioari lotuta doala multinazionalen sarrera ere; unitate militar espezializatuak sortu dira meatzaritza eta energia arloko proiektuak babesteko, eta goi-mendietako batailoiak jarri dituzte lurralde indigenetan.

Droga-trafikoa da departamenduan indarkeria areagotzen duen beste faktoreetako bat. Lurraldea kontrolatzeko borrokaren atzean, kokaren interesa dago, haren produkzioa, prestakuntza eta garraioa. Mendebaldeko eta erdialdeko mendikateetan 50.000 nekazari-familiak dihardute kokaren laborantzan; irauteko aukera bakarra dute hori. Estatuaren irtenbidea da —Kolonbia planaren oinarrituta¹²— lurraldea militarizatzea eta glifosatoarekin aire-fumigatzeak egitea.

Eragile armatu guztiak daude departamenduan: FARC-EP, Askapen Nazionalerako Armada (ELN), egitura paramilitarrak eta Indar Publikoa. Gobernu kolonbiarrak indartu egin ditu bere egitura logistikoak eta militarrik batailo berriak sortuz eta Popayanen aginte-postuak jarri. Departamendua gatazka armatuaren gertaleku nagusia eta etengabekoa da.

¹⁰ Cauca Bizitzaren eta Giza Eskubideen Aldeko Sarea, 2011ko eta 2013ko txostenak; CEAR-Euskadi, *Contra el Despojo. Capitalismo, degradación ambiental y desplazamiento forzado. Análisis de los casos de Colombia y Ecuador*. Bilbo, 2012.

¹¹ Kolonbiako Estatistika Administrazio Saila.

¹² *Bakerako, Oparotasunerako eta Estatu Sendotzeko Plana* edo *Kolonbiako Bake Plana* ere deiturikoa 1999an hitzartu zuten Kolonbiako eta Amerikako Estatu Batuetako gobernuak. Haren helburua izan da: gizartea eta ekonomia piztea, gatazka armatua amaitzea eta narkotikoen kontrako estrategiak sortzea. Alabaina, haren ekintzek gatazka armatua eta horren ondorioak larriagotu dituzte.

Alde horretatik, ez dago gelditzerik hiri nagusietarako lekualdatzea. Biztanle kopuruarekin alderatuta, Popayan da, Kolonbian, lekualdatutako pertsona gehien hartzen duen: egunero, 37 lagun sartzen dira, batez beste.

2013an, gutxienez 131 gerra-ekintza gertatu dira; giza eskubideen defendatzaileen kontrako 56 eraso, eta 21 hilketa. Gainera, exekuzio estrajudizialak gertatzen dira oraindik. 2013an, sei kasu gertatu ziren. Horietako bitan, armadak borrokan hildako gerrillari gisa aurkeztu zituen hildakoak.

Gizarte mobilizazioa eta erresistentzia Caucan

Gatazka politiko eta soziala historikoa da Caucan. Etengabekoak izan dira jazarpenak, mehatxuak, hilketa selektiboak eta bortxazko desagerpenak. Mende honetako lehen hamarraldian, 39 sarraski izan ziren, eta horrek erakusten du gatazkaren larritasuna.

Hala ere, antolaketa-mugimendu indartsua dago departamenduan; horregatik, testuingurua halakoa izanagatik, erresistentzia-prozesuei eutsi diete. Mugimendu indigenek, nekazarienek, afrikar etorkikoenek, mugimendu sindikalek, emakume-erakundeek eta ikasle- eta hiri-sektoreek bat egiten dute espazio komunetan, eta horietatik bakea eta bizitza duina lortzeko alternatibak proposatzen dituzte. Nazio osoko mugimendu handi bihurtu izan dira departamenduko zenbait ekimen; esaterako, la Minga de Resistencia Social Comunitaria, eta hortik Herrien Kongresua.

ANALISI-ELEMENTUAK

BAKE-PROZESUA

Giza eskubideen aldeko erakundeek kontaktzen digutena

Giza eskubideen erakundeek oro har baikortzat dute gobernuak eta FARC-EP taldeak hitz egitea. Erakunde guztiek uste dute negoziazio horiek lehen urratsa direla baina funtsezkoa ez dela gatazka armatua amaitzea bakarrik, helburua harago doala: bake iraunkorra, luzera begirakoa eta bidezkoa eraikitzea, gatazkaren egiturazko zergatiari heltzea, biktimei kalte-ordainak ematea eta kolonbiar guztiei bizi-baldintza duinak eskura jartzea. "Bakea ez da gerrarik eza soilik; justizia sozialeko prozesuak eraikitzea ere bada". Horretaz gainera, esaten dute lurraldean talde armatuak eta enpresa multinazionalak dauden artean gatazkek hortxe iraungo duela.

ELN prozesuan sartzea eta gizarte zibilak parte hartzea aldarrikatzen dute, baita biktimei eta gizarte mugimenduen ahotsak kontuan hartuak izatea ere. "Bakea Kolonbiako herriaren eskubidea da".

Oso kezkatuta daude gatazka oraindik hor delako eta indarkeria eta zigorgabetasuna handiak direnez areagotu ere egin delako. Gobernuari eta FARC-EP taldeari borroka armatua eteteko alde biko akordioa egin dezaten eskatzen diete.

Herrialdeko ingurune askotan egitura paramilitarrak egoteak ere kezkatzen ditu, baita Foru Penal Militarra onartu izanak ere. Haien ustez, helburua da armada bake-negoiazioetara zigorrik eta auzirik gabe iristea, eta, diotenez, baldintza hori Botere Militarrak ezarria izan da, prozesua onartzeko orduan.

Eskuduntza-arazoren bat egonez gero, Epaien Goi Kontseiluak erabakitzen du: Justizia Arrunta (Fiskaltza) edo Zuzenbide Penal Militarra. Salatu dute Fiskaltzatik Zuzenbide Penal Militararrera kasuak bidaltzen ari direla, eta eskatu dute giza eskubideak errespetatuko dituzten bideak hautatzeko. Gogorarazi dute gizateriaren aurkako delituak ezin dituela epaitu, inolaz ere, Zuzenbide Penal Militarrak, delitu horien epaiketa ezin dela utzi besterik gabe auzitegi arrunten mende eta ezin dela zain egon Kolonbiako Fiskaltza Nagusia onbera izango ote den.

Haien ustez, nazioarteko komunitatearen eginkizuna garrantzitsua da. Hori dela eta, itunak egitea beharrezkotzat jotzen dute dela gobernuarekin, erakundeekin eta nazioarteko gizarte-mugimenduekin, bake-prozesuaren gaineko trukeak egiteko eta politika parte-hartzaile bermedun bat aldarrikatzen laguntzeko.

Erakunde feministek emakumeen eskubideak errespetatuko dituen konpromiso etiko eta politikoa eskatzen dute Habanako agendan. Hala, *La verdad de las mujeres. Víctimas del conflicto armado en Colombia* ikerlanean (la Ruta Pacífica de Mujeres-ek koordinatua), gatazka armatuaren biktime izan diren mila emakume baino gehiagoren gertaerak biltzen dira, eta, etorkizunean Egiaren Batzordea sortuz gero, oinarritzko informazio gisa erabiltzeko balioko du.



Kolonbiako gizarte mugimenduak bilketa handia egingo du, urteetan aritu delako lanean hainbat gobernuri alternatibak proposatzeko. Badira guneak zeinetan hainbat ekimen komun aurrera ateratzen diren nazio osora begirakoak, eta gune horietan, agenda partekatzen da; esaterako, hor dago Bakerako Ibilbide Sozial Komuna taldea.

Eragile publikoek kontaktzen digutena

Biktimen Unitatearentzat, ezinbestekoa da biktimen eskubideak erreparatzea eta errekonozitzea bakea eraikitzeko. Akordioek gertaera biktimizatzaile gutxiago ekarriko dutela uste dute, baina ez indarkeria erabat desagertzea; izan ere, ez dira desmobilizatuko FARC-EP taldearen multzo guztiak; beste mobilizazio bat gerta liteke, eta, gainera, herrialdean badira erakunde armatu gehiago jardunean. Bacrimek indar handia dute zenbait tokitan, eta etengabeko arriskua dira.

Gizarte zibilak hainbat mekanismo ditu prozesuan parte hartzeko:

- Akordioak: biktimek 5.000 proposamen bidali dituzte.
- Foroak: Negoziazio Mahaiaren enkarguz, gizarte zibilaren proposamenak biltzen dituzte. Agendako lehen hiru eztabaidagaietan oinarrituta hiru foro egin dira: *Landa-erreforma integrala, Parte-hartzea eta Legez kanpoko laborantza*.

Unitateak biktimen ordezkarien parte-hartzea bultzatu du, eta eskatu du haiek Habanako mahaian egotea; ordezkaritza hori eratzeko, zenbait irizpide izan ditu kontuan. Gobernuak eta FARC-EP taldeak onartu dute parte-hartze hori, eta haiek erabakiko dute nork hartuko duen parte.

- Adituak: alderdiek mahaira deitzen dituzten pertsonak.

Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren programa presidentzialean esaten dute gobernuaren helburua bake integrala eraikitzea dela. 2011ko 4100 Dekretua onartzearekin batera, *Giza Eskubideen Sistema Nazionala* sortu zen, arauak, politikak, erakundeak eta nazio eta lurralde osoko eskariak eratzeko eta koordinatzeko, baita giza eskubideen errespetua eta bermea bultzatzeko eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (NZH) aplikatzeko ere.



Bilera, Giza eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren programa presidentzialarekin (Bogota)

Testuinguru horretan, eratu da honako plan estrategiko hau: *De la violencia a la Sociedad de los Derechos: Propuesta de Política Integral de Derechos Humanos (2014-2034)*, 8.500 erakunderekin baino gehiagorekin kontrastatua.

Onartzen dute Bacrim delakoak ekinean ari direla herrialdeko hainbat eskualdetan, eta normalizat dute legez kanpoko talde armatuek bake-prozesuaren ondoren ekinean jarraitzea. Polizia eta armada aurre egiten ari zaizkiela diote.

Esan digute Caucan komunitate indigenekin bilerak egin direla astero bi gairen inguruan: Eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak; eta giza eskubideak, gatazka eta bakea. Bilera horietatik atera da proposamenak bildu eta Habanara bidaltzeko ekimena.

Defentsa Ministerioak, berriz, herrialdea nabarmen hobetu dela dio, eta lurraldearen %94 bakean dela. Esan dute gatazkaren agerraldi txiki batzuk bakarrik gelditzen direla Caucako, Putumayoko eta Araucako departamenduetan. Bacrim delakoak badaudela onartzen dute, eta Polizia eta armada borrokan ari direla.

Caucako Herriaren Defentsa Erakundeak aitortzen du departamenduan dagoela herrialdeko gatazka armatuaren mugimendu gehiena. Hor daude FARC-EP eta ELN taldeak, baita alderdi artan izan diren sarraskiak egozten zaizkion Los Rastrojos talde paramilitarra ere. Alde horretatik, uste du bake-negoiazioetan egiten den edozein urratsek gatazka baretuko duela, eta landan bizi direnentzat onuragarria izango dela.

BIKTIMAK ETA LURRAK

Giza eskubideen aldeko erakundeek kontatzen digutena

Gehienek uste dute biktimei eta lurrak Itzultzeari buruzko 14/48 Legea ez dela tresnarik egokiena erreparaziorako ez lehengoratzeko eta bai formulazioan bai hura ezartzeko orduan gabezia handiak daudela.

Diote biktimen parte-hartzerik gabe egin dela legea, eta arreta-politika integral bat eskatzen dute, legea betearazteaz gainera egia, justizia, egindakoaren ordain osoa eta berriz errepikatuko ez delako bermea bilduko dituen. Oro har, biktimak ez dira babestuta sentitzen.

Memoria Historikoaren Zentro Nazionalak egindako *¡Basta Ya!* txostenarekin kritiko ageri dira erakundeak. Uste dute ez diola heltzen gatazkan estatuak duen ardurari eta biktimen iritziak ez daudela jasoak. Alde horretatik, Egiaren Batzordea sortzea eskatzen dute, eta batzorde horretan haien partaidetza bermatuta egotea. Haiek dira haien kezka nagusiak: egia *ofizial* bat eraikitzea, estatua gatazkarekin zerikusirik ez balu bezala aurkeztuta, eta biktimak aditu talde baten ikerketa soila bihurtzea.

Salatu dute Biktimen Unitateak bultzatutakoa diru-ordaina besterik ez dela —bortxazko lekualdatzeagatik 4.500 dolar jasotzen ditu biktimak, eta 11.000 dolar, hildako pertsonengatik—, eta ez dagoela laguntza psikologikoa emateko inolako baliabiderik. Horretaz gainera, esan dute biktimei era baztertzailan behartzen dietela bide administratiboa —diru bidezko ordaina— edo bide judiziala aukeratzera.

Azkenik, kezka larria erakutsi dute paramilitarrak berehala aterako direlako kartzelatik, Justiziaren eta Bakearen Legeak ezarri dizkien zigorrak beteta¹³. Haien ustez, horrela biktimak berriz biktimizatuko dira, eta egiaren eskubideari eta horrelakorik berriz ez gertatzeko bermeari eragingo diela.

Lurrari dagokionez, erakundeek esan digute lehengoratzeko-prozesua geldirik dagoela eta prozesu horiek bideratzen dituztenen aurkako hilketak eta mehatxuak gehiagotu egin direla. Gainera, Kolonbiako Landa Garapenerako Institutuari (Incoder) eta lurren titulazio-politikari egozten dizkiete hainbat sektoreren —indigena, nekazaria, afrikar etorkikoa— artean gertatzen ari diren bereizketak.

Salatu dute enpresa multinazionalak dauden edo sartuko diren lurraldeak militarizatu eta paramilitarizatu egiten dituztela eta ez dutela betetzen indigenei eta afrikar etorkikoei alde aurretik egin beharreko kontsulta.

¹³ *Testuingurua* atalean genioen bezala, Justiziaren eta Bakearen 975 Legea, talde paramilitarren desmobilizazioari buruzkoa, egitez, amnistia moduko bat izan da desmobilizatu ia guztientzat, eta zigortu dituzten gutxiek bost eta zortzi urte arteko zigorrak baino ez dituzte jaso gizateriaren aurkako delituak egiteagatik.

Guztiak daude oso kezkatuta 14/48 Legea lurralde-gabetzea legeztatzeko tresna bihurtuko ote den. Amnesty International erakundeak¹⁴ "fedea oneko tranpa" delakoaren bitartez ohartarazi du horren arriskua. Lege horren bitartez, indarrez kendutako lurren jabeen ordainak jasotzeko eskubidea aitortzen zaie, betiere fedea txarrez jokatu ez badute. Horrela, gerta liteke lurrez bidegabeki jabetu direnek onurak jasotzea; izan ere, titulu gehienak hirugarrenei eskualdatuak dizkiete, eta, hirugarren horiek paramilitarren senideak edo lagunak izan ohi direnez, beren buruak babesten dituzte —baita haien alde egiten zuten enpresariak eta politikariak ere—, eta ikerketak saihesten.

Bestalde, komunitate indigenek legea ezartzeko mekanismoetan ikuspuntu bereizgarriaren bat erabiltzea eskatzen dute.

Legez kontrako laboreei dagokienez, nekazari txikiak irauteko ekoizten dituzte, neurri handi batean; izan ere, labore tradizionalak ez dute irabazpiderik sortzen, merkatuko prezioak txikiak direlako eta horiek merkaturatzeko oinarriko azpiegitura falta delako. Caucako erakundeek salatu dute ez zaiela nekazarien aldarrikapenei erantzun errealik ematen ari, eta ez dagoela labore horiek ordezkatzeko estrategiarik ere, eta diote koka hostoak eta mitxoletak lantzen dituztenei lurra kentzeko aitzakiaren atzean gainera lurraldea kontrolatzeko asmoa dagoela.

Eragile publikoek kontaktzen digutena

Erakunde publikoek uste dute 14/48 Legea bakea eraikitzeko orduan oinarriko aurrerapausoa dela nahiz eta onartzen duten hori ezartzeko orduan zenbait hutsune eta gabezia daudela.



Bilera, Memoria Historikoaren Zentro Nazionalarekin (Bogota)

Memoria Historikoaren Zentro Nazionalaren helburua da "biktimen ahotsa izatea" eta gizartean egia, justizia eta erreparazioa zabaltzea. Onartzen dute zaila dela gatazka garaian horretan jardutea, normalena baita memoria historikoaren zentro bat gerraostean sortzea.

Lau betebeharrak proposatu dituzte:

1. Gertakariak argitzea: *¡Basta Ya!* txostena lehen urratsa izan da, gutxienekoen derrigorrezko akordioa. Giza eskubideen erakundeek, biktimen, gerrillen eta indar publikoaren kritikak jasotzen ditu.

Biktimei dagokienez, esan digute biktima asko ez direla sentitzen islatuta. Gabeziak onartzen dituzte, baina eztabaida abiatu izana baikortzat dute, eta txostena oraindik osatzen ari direla diote. Etorkizunerako helburuetako bat da eskualdeen, herrien eta indarkeria moten hutsuneak betetzea.

Ohartzen dira memoria *ofizial* batek berekin dakartzan arazoez, baina beharrezkoa dela uste dute, eta aitortzen egiteko urrats asko gelditzen direla; besteak beste, gerraren finantzatzaileak zein diren erakustea.

Babesa jasotzen dute, batez ere txostenaren bitartez biktimak biktima gisa aitortzen direlako.

2. Giza eskubideen txostenak gordetzea: Egiturazko zigorgabetasunari aurre egiteko, barne-gatazka armatuaren esparruan izan diren giza eskubideen urraketari buruzko dokumentuak bildu eta gordetzen dituzte (artxiboak, ahozko eta idatzizko testigantzak...).

¹⁴ Amnesty International, *Ley de Víctimas y de Restitución de Tierras. Análisis*. Madril, 2012.

3. Memoria-ekimenak: "Memoriaren Museoa" eta horrelako beste hainbat ekimen bultzatzen ditu, memoria kolektiboa indartzeko.

4. Desmobilizatuen testigantzak biltzea: Beren burua *biktimen ahostzat* izanik, onartzen dute eginkizun hori kontraesankorra gerta daitekeela.

Gutxi gorabehera, Kolonbiako Autodefentsa Batuetako (AUC) hamabost mila desmobilizatuen testigantzak jaso, sailkatu, sistematizatu eta aztertu dituzte. Desmobilizatu horiek 2010eko 1424 Legearen barruan sinatu zituzten Kolonbiako Gobernuarekin Egiaren Ekarpenerako Akordioak. Lege horrek aringarri penalak eskaintzen ditu, paramilitarismoaren gaineko egia historikoa berreraikitzen laguntzearen truke eta biktimen erreparazioan ekarpena egiteagatik, betiere gizateriaren aurkako delituengatik epaitu ez badituzte. Esan digute ez dela indultua; izan ere, zigorrak indarrean jarraitzen du.

Haien ustez, bertsio librean ondorioz, Justiziaren eta Bakearen Legeak kaltegileak heroi bilakatu ditu. Batzuek zenbait gertaera onartu eta barkamena eskatu badute ere, beharrezkoa da egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideari ekitea eta berriz ez dela gertatuko bermatzea. Gainera, biktimei "laguntza psikosoziala emateko orduan hutsune instituzionala" gertatu dela sentitzen dute.

Biktimen Unitateak gatazkaren biktima guztiak aitortzeko helburua du: biktima zuzenak eta zeharkakoak —hala nola biktimaren familiakoak eta harekiko lotura duen edonor, zer eragin dion erakusten badu—. Konstituzio Gortearen autoaren arabera, pertsona bat biktima bihurtzeko, ekintza batek eskubideak urratu behar dizkio —berdin du nor den kaltegilea—, eta gatazkarekin lotura estua eta behar bestekoa izan behar du. Ekintza mota hori zehazteko, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak (NZH) ezartzen dituen irizpideak jarraitzen dira. Definizio horren harira, 40.000 deklarazio aztertu dira. Horietatik, %80ri balorazioa aldatu zitzaion, eta biktima gisa aitortu zituzten.

Onartzen dute legea ezartzeko arazoak daudela; batetik, makina bat biktima daudelako (herritarren %12), eta, bestetik, gatazkak jarraitzen duelako (egunero gertatzen dira lekualdatzeak, desagertzeak, hilketak eta beste).

Bi urtean, 353.000 laguni eman dizkiete kalte-ordainak. "Diskurtso triunfalistik" egiteko moduan ez badaude ere eta oraindik egiteko asko badago ere, arazoa zein handia zen eta lehenagotik zer zegoen kontuan izanda, aurrerapausoa izan dela uste dute. Aurrerapausoak, batez ere, antolatutako biktimekin gertatu dira. Esan digute ez dutela ebaluazio orokorrik baina badituztela esperientzia baikorrak.

Aipatzen dute biktimak kalte-ordain administratiboa onartzen badu¹⁵ eta estatua epai bidez hura erreparatzera derrigortzen badute biktimari deskontatu egingo zaiola beste edozein entitatetik jasotako dirua, baita itzulitako lurren diru-balioa ere. Erreparazioa bermatzeko, oinarrizkoa da neurriak garai iristea. Horretarako koordinatuta egon behar dute nazio osoko erakundeek —37 erakunde daude inplikaturata—, baita lurraldeetako bulegoek Unitatearekin ere.

Uste dute laguntza humanitarioa eskatzeko izapidea ez dela zaila, baina bai erantzunak azkar ematea, batez ere, aurrekontuagatik¹⁶.

Unitateak egindako esku-hartzeak jasota daude *Plan de Atención, Asistencia y Reparación Integral* (PAARI) txostenean. Plan horren helburua da pertsona bakoitzaren behar eta gaitasunak dagoen lekuan erakundearen eskaintzarekin lotzea eta eskaintza horretako

¹⁵ 11.000 dolar pertsona bat hilez gero, eta 4.500 dolar bortxaz lekualdatzeagatik.

¹⁶ Biktimen Unitateak 1,7 bilioi pesoko aurrekontua du (Kolonbiako aurrekontuaren %2,6; alegia, 65 bilioi peso). Estatuko erakunde guztiek dute haien aurrekontua biktimak artatzeko. Defentsa Ministerioaren aurrekontua 25 bilioi pesokoa da.

hutsuneak identifikatzea. Plan horretan, 98.548 etxe daude sartuta —urtero beste 800.000 familia lekualdatzen dira—. Ohartu dira biktimen %50ek laguntza psikologikoa eskatzen dutela. 15.000 pertsona artatuak izaten ari dira, baina 3.000.000 daude laguntza psikologikoaren beharrean.

Gainera, lurraldera itzultzea erabaki dutenei lagundu egiten zaie —dela Kolonbian bertan, dela Kolonbiatik kanpo (Kolonbiatik kanpo, 395.000 pertsona errefuxiatuta daudela kalkulatu du Acnur-ek)—, betiere bi printzipioen arabera: segurtasuna eta borondatea.



Bilera, Biktimei Arreta eta Laguntza Emateko Unitatearekin

Ulergarri zaie biktimek estatuko erakundeekiko mesfidantza sentitzea, eta badakite hainbat traba gainditu beharko dituztela —batzuk oinordetzan hartuak, beste batzuk gatazkaren handitasunarekin zerikusia dutenak, beste batzuk eskumen kontuei dagozkienak...—. Horregatik, uste dute horiekin sareak eratzea oinarritzkoa dela.

Gaitasun faltagatik ezin diote aurre egin babes komunitarioaren edo kolektiboaren erronkari. Gainera, onartzen dute Kolonbian badirela estatuaren indar publikoen babes bakarrak duten eremuak, eta, babes ekintzak garatzen dituzten arren, kaltegieen eremuak ere izan badirela.

Defentsa Ministerioak jakinarazi digu lurraldeetara iritsi den estatuko lehen instituzioa izan dela. Komunitate askok lehen harremana izan dute Kolonbiako erakundearekin. Esan dute elkarrizketak dituztela komunitate indigenekin, afrikarrek eta nekazariekin eta gatazkaren ondorioz ez dagoela beste erakunderik hainbeste biktima dituenik.

Eskatu dute nazioarteko komunitateak indar berarekin salatu egin behar dituela bai gerrillak urratutako giza eskubideak eta Nazioarteko Eskubide Humanitarioa (NZH) bai gainerako erakunde armatuek urratutakoak.

Caucako Armadaren 29. Brigadaren ustez, biktimen kopuru handi batek abantailak baino ez ditu nahi, eta indar publikoa biktimatzat ez hartzea salatzen dute.

Esaten du giza eskubideen bermatzaileak direla departamenduan, eta alde horretatik, lurra jabeari itzultzeko prozesuetan laguntzen aritzen dira (erreklamazioen %50etan). Horretarako, astero, 300 soldadu eta 300 polizia mobilizatzen dira.

Caucako Gobernazioak dio ari direla aplikatzen komunitate indigenentzako eta afrikar etorkikoentzako 14/48 Legea eta dekretu etnikoak, eta biktimen babes- eta laguntza-mekanismoek kontuan hartzen dituztela etniaren eta generoaren ikuspegiak eta ikuspegi psikosoziala. Horretarako, lanean dihardute Caucako Eskualde Kontseilu Indigenarekin (CRIC) eta MISAK komunitatearekin.

Herriaren Defentsa Erakundeak ere ontzat jotzen ditu tresna legalak, baina horiek ezartzeko lanean segitu beharra ikusten du.

Lurren jabetzagatik komunitate indigenen, afrikarren eta nekazarien artean Caucan sortutako arazoengatik, **Giza eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren programa presidentzialak** esan digu Incodeer erakundeak horiei heltzeko eta konponbideak bilatzeko konpromisoa duela.

Azkenik, **Popayango Polizia Metropolitarrak** uste du lurak jabeei itzultzeko prozesua aurrera doala baina, eskualdean gatazka armatuak duen indarra ikusita, ezingo zaiela berehalakoan erantzun eskari horiei.

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK

Giza eskubideen aldeko erakundeek kontatzen digutena

Kezkatuta daude indarkeria eta mehatxuak gehiagotu egin direlako, batez ere emakume buruzagien kasuan, eta salatu egin dute horrelakoak gertatzea bake-elkarrizketak diren garaian.

Hori dela eta, uste dute ez dagoela haien lana bermatuko duen ezer, eta iruditzen zaie ez direla eraginkorrak gobernuaren babes-neurriak. Esan digute Babeserako Unitate Nazionalean (UNP) hamabost kasu daudela babes-neurriak onartu zaizkienak baina jaso ez dituztenak —horien artean, Finca La Europa komunitatea (Sucreko departamenduan), Pitalito komunitatea (Cesarren), eta Rios Vivos komunitatea (Antioquian); Antioquian, gainera, bi buruzagi hil dituzte dagoeneko—. Horretaz gainera, salatu dute kendu egin direla Giza Eskubideen Batzorde Interamerikanoak (CIDH) zenbait pertsonari ezarritako erresal buzko neurriak.

UNPren metodologia zalantzan jarri dute. Ez dago babes-politikorik; izan ere, ez da prebentzio-neurririk hartu, eta aurrekontuaren zatirik handiena neurri materialak eta banakako neurriak hartzeko bideratuta dago. Kolapso nabarmena gertatzen ari da —neurriak onartzea bost eta sei hilabete arteraino luzatzen da—, eta babesa tertziarizatzen doa, segurtasun pribatuko enpresak azpikontratatuta. Gainera, enpresa horietako langile batzuk diote paramilitarismoarekin harreman zuzena izan dutela iraganean. Bestalde, antzinako Segurtasunerako Administrazio Departamenduko (DAS) funtzionario izanak dira babes-eskemetan diharduten funtzionarioetako asko. Funtzionario horiek UNPra pasatu ziren zuzenean, alde zuzenetik inolako garbiketa-prozesurik egin gabe ziurtatzeko Unitatera pasatzen zen edonor ez zela legez kanpoko inteligentzia-ekintzetan nahasirik egon.

Salatzen dute parte-hartze politikorako eskubidetik baztertzen dituztela sistematikoki: hizkuntza iraingarria erabiltzen dute, kriminalizatzeko estrategia modura; bizitzaren kontrako erasoak egiten dituzte; baita seinalatzeak, hausazko atxilotzeak eta muntaia judizialak ere.

Bogotan, zuzenean jaso dugu Miguel Angel Beltran Villegasen kasua. Kolonbiako Unibertsitate Nazionaleko irakaslea zen, eta epaitu eta desgaitu egin zuten, gatazkaren inguruko ikerketa akademikoak egiteagatik. Beltran Villegasek esan digu Kolonbiako Prokuradoretza Nagusia zigor-tresna bihurtzen ari dela ezarritako ordena zalantzan jartzen duen ororen aurka, "lan-hilketa" helburu duten prozesu kriminalizatzaileen bitartez. Diziplina-espedienteak (administrazio bidez) prozesu penalaren akusazioak hartu ditu berriz, nahiz eta frogatuta gelditu den horiek faltsuak direla. Kartzelan bi urte igaro eta gero, Prokuradoretzak desgaitu egin zuen. Etengabeko jazarpena jasan behar dutela salatu du.

Esan dute aldatu egin dela giza eskubideen defendatzaileek jasaten duten jazarpen-estrategia: batetik, delinkuentzia komunitat hartzen dituzten orain hilketa selektiboak, eta, bestetik, prozesu judizialak lehentasunezko *tresna* bihurtu dira. Orain, soslai publiko handiena dutenez gainera, oinarriko lana egiten dutenak ere mehatxatu eta seinalatu egiten dituzte; horrek kalte larriak eragiten ditu komunitateetan. Salatu dute ekintza horiek gobernuaren laguntzarekin gertatzen direla edo ardurarik, behintzat, ez duela hartzen.

Preso-politikoaren egoera larriaz ohartarazi digute. Preso asko oinarrikeri gabeko epaiketen biktima dira, eta, "segurtasun demokratikoa" deritzon politikaren ondorioz, Kolonbiako kartzeletan 77.000 preso daude delitu txikiengatik, eta 300 bakarrik sexu-indarkeria, bortxazko desagertze-, lekualdatze- eta bestelako delitu larriengatik.

Caucan, eskualdeko buruzagiak epaitzeko estrategia salatu dute erakundeek; diotenez, 906 Legea, zigor auzibidea arautzen duena, pobrezia eta salaketa soziala kriminalizatzeko eta epaitzeko sortu da, eta, gainera, ez du bermerik ematen akusatuen defentsarako. Erakundeari jakinarazi dizkiote auzibide horietan oinarri asko urratu izan direla; esaterako, irregulartasunak izan dira frogen zaintza-kateetan —zeinak militarren brigadetan egoten diren— eta lekukoak erabileran —Polizia Nazionalak edo armadak berak dirua ematen die birgizarteratu diren FARC eta ELN taldeetako kideei eta gaizkile arruntak direnei, lekukotasun faltsuen truke—. Esan dute baita Brigada Militarretan ere egin dituztela zibilen auzialdiak, eta Fiskaltzak zilegitasuna eman diela horrelako jardunbideei.



Bilera, Caucaoko Departamenduko giza eskubideen aldeko erakundeekin (Popayan)

Estrategia hori erabilia ehun bat pertsona harrapatu dituztela kalkulatu dute, eta salatzen dute beste asko isilpean ikertzen ari direla, gizarte-sarea desegituratzeko helburuarekin.

Gainera, Bloque Calimako talde paramilitarrek bi hamarralditan krimenez krimen eskualdea astindu zuten arren, oraindik ez dute zigorrik jaso. Gizarteko klase menderatzaileen estrategia izan zen talde horiek eratzeari laurogeita hamarreko urteetan, nekazarien, indigenen eta gizarteko beste sektore batzuen lan sozial eta politikoari aurre egiteko. Alvaro

Uriberen gobernu garaian ezarritako "segurtasun demokratikoaren" politikak eta diskurtso antiterroristak egoera aproposa sortu zuten gehiegikeria guztiak justifikatzeko eta gizarte-mugimendu horien aurrerabideak trabatuzko.

Komunitate indigenek, berriz, aitortzen dute Kolonbiak haien eskubideak babesten dituen arautegi handia duela, baina erakundeetan ez omen dago hura ezartzeko mekanismorik eta borondate politikorik. Beren lurraldeetan meategiak eta energia ustiatzearen aurka daude, eta beren buruzagi eta gobernatzaileen kooptazio estrategia salatu dute. Esaterako, hor egon zen OPIC (Kolonbiako Herri indigenen Erakundea) Uriberen gobernu garaian, mugimendu indigena desegituratzeko eta ahultzeko asmoa puri-purian zegoenean sortutako erakunde paraleloa. "Indigena onak dira *garapenaren* aldeko apustua egiten dutenak eta armadarekin elkarlanean aritzen direnak". Kezkatuta daude kooptazio horiek kabildoetan sartu eta multinazionalak lurraldeetan sartzeko kontzesioak sinatuko ote dituzten.

Lurraldea defendatzea bizitza defendatzea da, eta esparru horretan, lurrak kontrolatzeko estrategia bat ezartzea erabaki dute. Guardia indigenek eta komunitateak erakunde armatu guztiak botatzen ditu haien lurretatik, zilegi zaien eskubide propioa aplikatuta. Jarrera horrek, berriz, haien kontrako hainbat eraso ekarri ditu: hilketak selektiboak, mehatxuak, seinalatzeak, epaiketak indar publikoaren kontrako erasoengatik...

Zailtasun horiek gorabehera, giza eskubideen erakundeak etengabe saiatu dira Kolonbiako gobernuarekin elkarrizketak egiten, haien egoera azaltzen eta zilegitasunez egiten duten lana horretarako bermeak eskatzen.

2009tik, giza eskubideen eta bakearen aldeko hainbat plataforma ari dira estatuarekin elkarrizketa-prozesu bat egitearen alde, Bermeen Prozesu Nazionala deritzona. Prozesu horren helburua da giza eskubideak babesteko beharrezko diren bermeak zehaztea. Mahai nazionalen eta lurraldeko mahaien bitartez egiten dute.

Uste dute izan direla zenbait aurrerapauso; adibidez, Babeserako Unitate Nazionala (UNP) delakoa sortu da. Hala ere, politika publikotik ez da laguntzarik etorri, ez baitira prebenitu giza eskubideen urratzeak eta ez baitzaie aurre egin gatazkaren egiturazko zergatiei; horren ondorioz, erasoak ez dira eten.

Hori dela eta, gizarte-erakundeek eta giza eskubideen aldekoek plan nazional bat eratu dute giza eskubideak babestea bermatzeko. Plan horren helburuak hauek dira: proposamenak bateratzea estatuarekin duten elkarrizketa-prozesua indartzeko eta beren lanerako bermeak eskatzea. Planak hiru estrategia ditu: aurreikuspena, babesa eta berriz ez errepikatzeko bermea.

Eragile publikoek kontatzen digutena

Erakunde publikoek esan digute gobernuak babesa ematen duela eta, hainbat tresna eta mekanismoren bitartez, giza eskubideen defendatzaileei laguntza instituzionala ematen diela haien babesa bermatzeko eta giza eskubideak errespetarazteko. Hala ere, desadostasunak daude lan hori baloratu eta aitortzeko orduan.

Biktimen Unitateak, *Ez errepikatzeko bermeak* programaren bitartez, hainbat gauza egin nahi ditu: giza eskubideen defendatzaileen kontrako altxamenduengatik dauden prozesu judizial paralizatuak martxan jarri; arau biktimizatzaileak ikertu; zigor- eta diziplina-ekintzak sustatu giza eskubideak urratzen dituen funtzionarioaren kontra; eta erreparazio-prozesuak bultzatu, Justizia Administrazioarekin hitzarmen bat eginda.

Kolonbiako Fiskaltza Nagusiko Giza Eskubideen Unitateak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak 6.000 ikerketa daramatza. Horrelako lan-kargari aurre egiteko, *Azterketa eta Testuinguru Unitatea* sortu da; haren lana izango da pertsona bati kasu batek baino gehiagok eragiten badiote denak batzea eta batera ikertzea. Haren lehentasuna dira giza eskubideen defendatzaileen kontrako mehatxu-kasuak, baina onartzen dute egiaztatzeko delitu zailak direla.

Haien kontrako epaiketei dagokienez, helarazi digute Fiskaltzak kasua aztertzekeo beharra duela eta Prokuradoretzak prozesua behar bezala joan dadin zaintzen duela.

Foru Penal Militarari dagokionez, esan dute lege-proiektuak salbuespenak dituela gizateriaren aurkako delitu kasuetan eta Zigor Kodearen I. tituluan biltzen direnetan; kasu horietan, orain arte bezala, justizia arruntak izango du eskumena. Gaineratu dute Kolonbiako Fiskaltza Nagusiak arau bat duela kasu horiek Justizia Penal Militarera bidaltzea saihesteko.

Babeserako Unitate Nazionalak (UNP) esan digu zer prozedura erabiltzen den giza eskubideen defendatzaileak babesteko arriskuaren arabera: arrunta, ezohikoa eta muturrekoa. Ziurtatu digute neurriak hartzen ari direla ikuspuntu askotatik: geografia, etnia, kultura...

Defentsa Ministerioak jakinarazi digu, Kolonbiako segurtasunaren arduradun den aldetik, ekintza kriminalei aurre egiten ari dela eta giza eskubideen defendatzaileei laguntzen diela beren lana bermez egin dezaten.

Esan du betidanik errespetatu izan dituela giza eskubideak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (NZH) eta "ekintza bakan batzuegatik" estigmatizatu egiten dutela. Gehitu dute gaur egun gai horren inguruan etengabeko prestakuntza jasotzen ari direla.

Caucako Armadaren 29. Brigadarentzat, oinarririk gabeak dira giza eskubideen aldeko erakundeen salaketak. Esan digute kontratatzekeo nahi badugu berek ematen dituzten zifrak Fiskaltzak daramatzan salaketekin eta kasuekin. Aipatu dutenez, 2008tik, giza eskubideen urraketekin zerikusia duten ikerketak %2 baino ez dira ikerketa guztiak kontuan hartuta, eta gehienak gatazkak berekin dakartzan zehar-kalteek eraginak direla (bala galduak, herritarrak gerrillaren eta armadaren arteko borroken erdian egotea...). Onartzen dute "*hutsegiteak*" eta

"*gehiegikeriak*" izan direla, baina jakinarazi digute ekintza horiek guztiak ikertzen ari direla eta haien tropek asko aurreratu dutela giza eskubideen trebakuntzan.

Esan dute Caucako egoera ez dela dioten bezalakoa; departamendua lasaia dela eta hainbat zerbitzu dituela; lana badagoela, hezkuntza eta osasunerako aukera, libre mugitzeko aukera eta turismoa suspertzen ari dela. Hala ere, aitortzen dute egiteko asko dagoela.

Honako hau jakinarazi digu Gobernurako eta Kudeaketa eta Partaidetza Sozialerako Idazkaritzak **Caucako Gobernazioaren Giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren programaren barruan:** Alerta Goiztiarren Sistemaren arabera (SAT), departamenduko udalerrien %50ek arrisku-txostena dutela, giza eskubideekiko eta NZHrekiko arau-urratzeak egiteagatik. Defentsa Bulegoak igortzen ditu txosten horiek, eta hura arduratzen da jarraipena egiteaz. Horretaz gainera, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren (CIDH) erresalbuzko neurriak ere badira — banakakoak eta kolektiboak—; 874 pertsonak, berriz, Babeserako Unitate Nazionalaren laguntza dute.



Bilera, Caucako departamenduko agintari zibil eta militarrekin (Popayan)

Giza eskubideen aldeko erakundeek eta erakunde publikoek erabiltzen dituzten zenbakien arteko aldea azaltzeko orduan, haien ustez kontua da teknika, iturri eta azterketa-datu desberdinak erabiltzen direla.

Azaldu digute departamenduko 42 udalerrietan zergatik dirauten oraindik giza eskubideak urratzen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioarekiko (NZH) arauak hausten: Imajinario kolektiboa —giza eskubideen defendatzaileei eta komunitateei egiten zaizkien irainak eta seinalatzeak—; legezko eta legez kanpoko dinamika ekonomikoak, giza eskubideak eta NZHa urratzen laguntzen dutenak —meatzaritzari egiten diote erreferentzia—; Justizia Administrazioaren zigorgabetasuna eta giza eskubide- eta NZH-urratzeak ikertzeko, zigortzeko eta epaitzeko arazoak; lurrengatik borrokak; estatuaren esku-hartzea edo esku-hartze falta —babesa bermatzeko orduan, ahul dabil administrazioa—; zeinetan giza eskubideak eta NZHarenak urratzen dituzten operazio militarrek.

Bestalde, **Caucako Herriaren Defentsa Erakundeak** beharrezkotzat ikusten du ikuspuntuan ere aurrerapausoak ematea lurralde etnikoetan. Aitortu du giza eskubideen defendatzaileek lan zaila egiten dutela; eta lan horren ondorio dira arrisku-txostenak, babeserako eskemak (UNP) eta CIDHren erresalbuzko neurriak.

Polizia Metropolitarrak esan digu base guztietan dagoela giza eskubideen unitatea eta prestakuntza espezifikoa ematen dutela. Gaur egun, hau da kontsigna: gardentasuna, eraginkortasuna, elkartasuna eta giza eskubideen errespetua.

Oztopoak egon arren, uste dute ari direla pertsonak babesten. Esan digute orain UNPri dagokiola babesteko funtzioa baina agindua dutela mehatxatutako giza eskubideen defendatzaileen etxeetatik pasatzeko eta erakusteko haiek ere babesa emateko daudela.

EGOERA ESPEZIFIKOAK

Aldi Batez Babesteko Eusko Jaurlaritzaren programan hartutako pertsonen erakundeak

Hondurasko (Morales) eta Cerro Tijerasko (Suarez) kabildo indigenak - Cauca

Cauca iparraldeko komunitate indigenek haien bizi-planak eraikitzeko, printzipio hauek erabiltzen dituzte: espiritueltasuna, elkarrekikotasuna, osotasuna eta lurraren erabilera errespetuzkoa. Gainera, antolaketa-printzipioak beti izan dituzte gogoan bere aldarrikapenetan: batasuna, lurraldetasuna, kultura eta autonomia.

Hondurasko Babeslekua izaera bereziko lurralde-erakundea da, eta estatuak izaera koloniala aitortu zion leku hari 1956an. Cerro Tijerasko Kabildoan indigenen, nekazarien eta afrikar etorkikoen herriak daude. Bietan, nasa etnia zaharreko komunitate indigenak daude. Nasa herriak ez du bizitza ulertzen lurrik eta kolektibitate gabe.



Euskal Ordezkaritza, buruzagi tradizionalekin, gobernadoreekin eta Hondurasko Babeslekuan eta Cerro Tijerasko Kabildoan dagoen komunitateko kideekin (Hondurasko Babeslekua, Morales, Cauca)

TESTUINGURUA

La Salvajina presa


Cauca ibaiaren arro hidrografikoan dago La Salvajina, Moralesko, Suarezko eta Buenos Airesko udalerrietan. 2.124 hektarea ditu —32 kilometro luze eta 1,2 kilometro zabal da, eta, batez beste, 36,4 metroko sakoneran dago—¹⁷.

1977an, CVC Cauca Haraneko Eskualde Korporazio Autonomoa izeneko erakunde publikoa hasi zen hura eraikitzen, eta Cauca Haraneko eta Cauca departamenduetako eremuak ukitu zituen. Zentral hidroelektrikoa 1985ean jarri zen martxan. Orduetik, haren kudeaketa eskuz

¹⁷ Miguel ORTEGA, Juan Pablo SOLER eta Silvia CAÑELLAS (2006): *Unión Fenosa en Colombia. El embalse de Salvajina y el desvío del Río Ovejas: una deuda ecológica y social que no deja de crecer*. Webgune honetan: http://www.odg.cat/documents/enprofunditat/Transnacionals_espanyoles/200603_ODG_UF_COL_salvajina%20y%20rio%20ovejas.pdf

aldatzen joan da. Hasiera batean, CVCK hartu zuen bere gain. Ondoren, Pazifikoko Energia Enpresa (EPSA) bihurtu zen instalazioaren jabea, Kolonbiako energia privatizatzekeo politika zela medio. 2000. urtean, Union Fenosak erosi zuen EPSA. 2009an, Gremio Empresarial Antioqueño erosi zuen enpresa hura, eta geroztik hura izan da bazkide nagusia, kapitalaren %64ren jabea.

Hasiera batean, proiektuak itxaropenak ekarri zituen herriarentzat (hezkuntza, osasuna, argindarra, azpiegiturak...). Hala ere, presak ez dio onurarik ekarri eskualdean bizi diren komunitateei; kalte handiak eragin ditu, eta eragiten ari da. Herrialde indigenen, afrikar etorkikoen eta nekazarien bizilekuak urperatuta, meatzaritza tradizionalen eta nekazaritzan aritzen ziren hiru mila pertsona baino handik joatera behartu zituzten. Haiek atera eta berehala,



La Salvajina

banana-, kafe- eta fruta-arbola sailak deuseztatu zizkieten, baita haien antzinako lurraldeak ere. Gainera, urtegiak herritarren komunikazio-sareak hautsi zituen; geroztik, ezinezkoa da larrialdietako osasun-arreta ematea eta uzta hirira eramatea. Bestalde, ingurumena hondatzen ari dira eskualdean, eta, beraz, baita bizimodu tradizionala eta beste eskubide batzuk ere.

Horregatik, kaltetutako herriek hainbat protesta egin zituzten 1986an, hondamena salatzekeo. Mobilizazioen ondorioz, akordio batera iritsi ziren kaltetutako herriak eta gobernuak; neurri batean, behintzat, ordaina ematekeo. "Caucako departamenduan La Salvajina urtegia eraikita

kaltetu ziren nekazarien eta indigenen komunitateen ordezkariekin hartutako konpromisoen aktan", Administrazio Publikoaren eta CVCKren konpromisoak biltzen dira; besteak beste, honako hauen gainean: osasuna; zerbitzu publikoak; argindarra; telefonia; ekoizpena eta lana; meatzaritza, arrantza eta basoberritzea; komunikabideak eta garraioibideak; Suarezko lan-publikoak; eta kontu indigenak.



La Salvajina urtegiaren ertzeko etxebizitzak (Morales, Cauca)

Konpromiso horiek ez dira bete, eta inpaktu negatiboak areagotu egingo dira Ovejas ibaiaren ibilbidea urtegiara desbideratzeko proiektuarekin.

Urtegia eraiki eta gero, gainera, eskualdea militarizatu dute, eta talde armatuen ekintzak areagotu egin dira. Salaketak pilatu ahala eta eraginaren aitortza eta erreparazioa eskatu ahala, errepresioa handituz joan da. 1992an, Oscar Elias Lopez hil zuten; Cauca Indigenen Eskualde Kontseiluko (CRIC) aholkulari juridikoa eta La Salvajinari erresistentzia egitekeo bultzatzaile nagusietakoa. 2009ko maiatzaren 18ko goizaldean, Tierradentron, Hondurasko Babesleku Indigenan, talde paramilitarrek Robert de Jesus Guacheta hil zuten, babeslekuko ordezeko gobernatzailea. Besteren artean, salatua zuen Kolonbiako estatuko lurak nola ematen

zizkien urre-meatzeen enpresei eta La Salvajinak zer kalte eragiten zuen. Larderiaren eta etengabeko mehatxuen biktima izan zen. Erresal buzko neurriak eskatu zizkion estatu kolonbiarrari eta CIDHri, baina ez zioten inoiz erantzun.

Denbora horretan, herritarrek etengabe jasan dituzte lurraldeko talde armatuen larderiak, mehatxuak, hilketa selektiboak, bortxazko lekualdatzeak eta sarraskiak, eta oraindik jasaten ari dira. Talde horietako gehienek ez dute zigorrik jaso.

Gatazkako erakunde armatuen arteko talka-eremua

Eskualde honetan, indar handia du gatazka armatuak. 2012an, eskualde hartan, armadak FARCEko buruzagia hil zuen, Alfonso Cano ezizenekoa. Gertaera horren ondorioz, gerra-ekintzak areagotu egin ziren (bonbardaketak, borrokak) eta komunitateek talde armatuen mehatxuak jaso zituzten (armadarenak, gerrillanak, paramilitarrenak). 2013an ez dira gelditu borrokak.

Babes-ekintza Konstituzio Gortearen aurrean

2012ko urriaren 23an, Hondurasko eta Cerro Tijerasko kabildoetako gobernatzaleek eta buruzagi tradizionalak babes-ekintza bat aurkeztu zuten, Konstituzio Politikoaren 86. artikuluan eta 1991ko 2591 Dekretuan oinarrituta, honako eragile hauen aurka: Errepublikako Presidentetza, Barne Ministerioa, Hezkuntza Nazionaleko Ministerioa, Caucako Gobernuak, Caucako Departamenduaren Hezkuntza Idazkaritza, CVCa eta Union Fenosa,



Euskal Ordezkaritza Morales udalerritik La Salvajinara eramatea

hainbat itun eta artikulua urratzeagatik: Konstituzioko aitzinsolasa eta beste

zenbait artikulua, LANeren 169. hitzarmena, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, San Salvadorko protokoloa eta Haurraren Eskubideen Hitzarmena, 1986ko akordioak ez betetzearen harira; guztira, %70eko ez betetzea.

Lurra bisitatzeko unean, Euskal Ordezkaritzak zuzenean ikusi zuen **zein den herrialdearen**

inkomunikazio-egoera dela urtegia zeharkatzeko garraio eskasiagatik, dela Morales udalerritik Hondurasko Babeslekura arte iristeko bideen egoeragatik.



La Salvajina gurutzatzeko txalupetako bat (Morales, Cauca)

1986ko akordioa dela medio, urtegia zeharkatzeko bi txalupa baino ez daude. Txalupak beren ordutegia dute, eta ordainpekoak dira. Gainera, gasolinaren prezio altuei aurre egin behar die — herrialdeko garestiena— haien garraio propioa erabili ahal izateko. Larrialdietan —izan osasun larrialdiak edo izan borrokak—, herritarrek zailtasun handiak izaten dituzte.

Gaur egun urtegia ustiatzen duen enpresak (Grupo Empresarial Antioqueño) ur-maila handitu edo txikitu egiten du, esportaziorako energia eskariaren arabera. Horrela, batzuetan, urtegia hustu eta lokatzez estalia geratzen da, eta, ez denez modurik izaten pasatzeko, herriak inkomunikatuta egoten dira. Pertsona askok bizia galdu dute baldintza horietan urtegia zeharkatzen saiatzeagatik. Gainera, arrastatzeko materiala mantentzeko betebeharra ez denez betetzen, urtegiaren burua zaborrez, egurrez eta harriz betetzen da, eta nabigatzeko zaila egiten da.

Enpresa multinazional bat egon arren eta *garapenerako* promesa eman zen arren, komunitateak inkomunikaturik eta urtegiak sortzen duen energia elektrikoa erabiltzeko aukerarik gabe bizi dira gaur egun.

Oso militarizaturik dagoen lurralde batean, herritar zibilak borrokaren erdian geratzen dira, eta erakunde armatuengandik seinalatzeak eta kriminalizazioak jasan behar izaten dituzte, diotenez haiei ez dagokien gerra batean gainera.

Hala, oinarrizko eskubideak urratzen dira, eta, era berean, 1986ko aktako urratzen da. Komunitatea kezkatuta dago bereziki ez dutelako sarbiderik **osasun** (prebentzioak eta larrialdi medikoak) eta **hezkuntza** zerbitzuetara (Lomitas eskolara joateko bi ordu behar direnez eta bideak militarizatuta daudenez, gurasoek erabakitzen dute umeak eskolara ez bidaltzea) eta ezin dutelako **aske mugitu** beren lurraldean.



Urtegiaren buruko sedimentuak, Hondurasko Babeslekutik gertu

Moralesko Pertsoneriak komunitateekin izandako bileran parte hartu zuen, eta adierazi zuen nazioan ez dagoela lurralde horrekiko kezkarik. Biktimen Unitateak ez dio irtenbiderik ematen, eta Fiskaltzak ez ditu ikertzen komunitateak salatutako gertaerak; bortxazko lekualdatzeengatik jarritako salaketen %30etan baino ez du ebazpenik eman. Horretaz gainera, esan du eskualde guztiari laguntzeko baliabide ekonomiko eta giza baliabide —pertsona bat eta idazkari bat— gutxi dituztela — DANeren arabera, 27.000 bizi dira udalerrian, baina seguru asko 30.000 baino gehiago izango dira gaur egun—. Gainera, hilketak selektiboak gehitu egin omen dira. 2013an, hamalau lagun hil zituzten, eta 2014ko urtarrilaren 27rako jadanik beste bi hil dituzte. Indarkeria-ekintzen ardura eskualdeko erakunde armatu guztiena da.

Ezarritako babes-ekintzaren ondorioz, lurrak bisitatu zituzten Caucako Herriaren Defentsa Erakundeak, Poliziako Giza Eskubideen Unitateak eta Suarezko epaileak, hitzarmenak zein mailatan bete diren ikusteko. Gaur egun, Konstituzio Gortearen epaiaren zain daude.

Lurraldeko beste hainbat erauzketa-interes

Hondurasko eta Cerro Tijerasko kabildoak lurralde menditsuetan daude, eta han, jatorrizko basoak daude batez ere; kalitate oneko egurra eta ur garbia dituzte. Erauzketa-enpresa pribatuek mineraletan aberatsak diren lur azpiez jabetu nahi dute; izan ere, Kolonbiako Gobernuak meatze maila ertainean eta altuan ustiatzeko lizentzia emana die 2003tik. Morales udalerrian, hamasei kontratu-emate daude, eta Suarezren, 36.

Meatze-ustiapena aire librean egiteak ingurumen-kalte handiak dakartza berekin. Mendiak dinamitatzen dituzte mineraletara heltzeko; merkurioa erabiltzen dute mineralak garbitzeko, eta merkurio horrek ibaiak izugarri kutsatzen ditu... Gainera, enpresa horien etorrerarekin,

lurraldea militarizatu eta paramilitarizatu egiten da ere badakar, baita komunitateei egiten zaizkien jazarpenak eta mehatxuak areagotzea ere.

KOMUNITATEEN ERRESISTENTZIARAKO ETA ERAIKUNTZA ALTERNATIBORAKO PROPOSAMENAK

Caucako eta Kolonbiako herri indigenak aspalditik ari dira haien lurraldeak defendatzeko erresistentzia-prozesuak sortzen. Hondurasko eta Cerro Tijerasko komunitateek, Indigena Nagusien bitartez, lan egin dute giza eskubide etnikoak, kulturalak eta lurraldetasunezkoak babesteko, gatazka armatua eta enpresa multinazionalak bertan izanda; izan ere, eragin handia izan dute haien bizimoduan, ohituretan eta ingurumenean. Gatazka armatuaren erdian bizirik irauteko hainbat estrategia asmatu dituzte. "Joaten bazara, itzultzen zarenean beste batzuk aurkituko dituzu zure lurretan". Horregatik, bizirik irauteko estrategia funtsezkoa da lurralde barruan lekuz aldatzea eta nazioko eta nazioarteko itunak egitea —Kolonbiako eta nazioarteko giza eskubideen aldeko erakundeak, eragile politikoak, nazioarteko erakundeak, babeserako programak—.

Gainera, komunitateek hainbat estrategia garatu dituzte antolakuntzan trebatzeko eta indartzeko:




Cerro Tijerasko eta Hondurasko Babeslekuetako komunitateekin egindako bilera, Jakintzaren Nazioarteko "Robert de Jesus Guacheta" Eskolan

- "Robert de Jesus Guacheta" Kultur Arteko Jakintzen Eskola (Hezkuntza eta Giza Eskubideen Ikerketen Diploma eta Zuzenbide Ekonomiko, Sozial, Kultural eta Ingurumenekoen Espezialitatea): Nomadesc Elkartek lagunduta ari dira, eta jurisdikzioaren eta hezkuntza indigena propioaren arloko prestakuntza ematen dute. Eskolaren helburua da prestakuntzaren bitartez komunitatea politikan eta antolakuntzan indartzea. Honako ikasgai hauek jorratzen dira: Eskubide propioa, lege nazionalak eta nazioarteko eskubideak. Dagoeneko bi promozio atera dira eskolatik.
- Herrien Kultur Arteko Unibertsitatea: Kultur Arteko Jakintzen Eskolako esperientzia pedagogikoetatik sortu zen; haren oinarrian dago herrien eskubideen eta haien aniztasunaren aitortza eta bizikidetzaren eredu baketsu baten eraikuntzan sakontzea bizitza eta lurra babesteko dituenak.
- Guardia indigena: Lurraldea eta Bizi Plana indarkeriarik gabe defendatzeko, erresistentzia-, batasun- eta autonomia-tresna da. Aginte-makilak balio sinbolikoa ematen dio. Agintari tradizionalekin eta komunitatearekin koordinatuta, zenbait funtzio ditu: lurraldea zaintzea, kontrolatzea, alarma piztea, babestea eta defendatzea.

Haren oinarrian daude jatorriaren legea, eskubide propioa eta Kolonbiako Konstituzioa (7.¹⁸, 246.¹⁹ eta 330.²⁰ artikulua).

- Erresistentzia Sozialaren eta Komunitarioaren Elkartea: Herrietan lan kolektiboa egiteko proposamena, irauteko eta historia egiteko jakinduria partekatuta. Gaur egungo Erresistentzia Sozialaren eta Komunitarioaren Elkartea 2004an osatu zuten, "kentzeko joera duen ekonomia-ereduari eta heriotza-proiektuari" erresistentzia egiteko. Herri indigenek elkartearen bitartez laguntzeko eskatzen diete herrialdeko askotariko mugimenduei eta taldeei. Bost puntutan oinarritzen da: 1) NAFTA Merkataritza Libreko Itunari uko egitea; 2) Beldurra eta gerra amaitzea; 3) Ondasunegabetzeko legedi guztiak indargabetzea; 4) Herri indigenei dagozkien Nazioarteko Akordio eta Hitzarmen guztiak betetzea; 5) Burujabetza-, Bake- eta Bizikidetzamekanismoak sortzea.



Hondurasko Babeslekua (Morales, Cauca)

¹⁸ 7. artikulua. Estatuk Kolonbiako aniztasun etniko eta kulturalak aitortzen eta babesten ditu.

¹⁹ 246. artikulua. Herri indigenetako agintariek eskumen-funtzioak bete ahalko dituzte haien lurraldearen barruan, haien arauak eta jardunbideak jarraituta, betiere Konstituzioaren eta Errepublikako legeen aurka ez badoaz. Legeak ezarriko du nola koordinatu jurisdikzio berezi hau epai-sistema nazionalarekin.

²⁰ 330. artikulua. Konstituzioarekin eta legeekin bat etorritik, lurralde indigenak gobernatzeko, kontseiluak osatu eta arautuko dira, beren komunitateen ohituren eta tradizioen arabera, eta honako funtzio hauek beteko dituzte: 1. Lurraren erabilera eta lurraldearen populatzea arautzen dituzten legeak betetzen direla zaintzea; 2. Garapenerako Plan Nazionalarekin bat etorritik, lurraldearen garapenerako politikak eta ekonomia- eta gizarte-planak eta -programak diseinatzea; 3. Lurraldean inbertsio publikoak bultzatzea eta horiek behar bezala betetzen direla zaintzea; 4. Baliabideak jaso eta banatzea; 5. Baliabide naturalen iraupena zaintzea; 6. Lurraldeko komunitateek bultzatutako programak eta proiektuak koordinatzea; 7. Kolonbiako Gobernuaren arauarekin eta xedapenekin bat etorritik, lurraldeko ordena publikoari eusten laguntzea; 8. Kolonbiako Gobernuaren eta lurraldea parte den gainerako erakundeen aurrean lurraldearen ordezkari agertzea; 9. Konstituzioak eta legeak ezartzen dizkieten gainerako guztiak.

PARAGRAFOA. Komunitate indigenen osotasun kulturala, soziala eta ekonomikoa hondatu gabe ustiatuko dira lurralde indigenetako baliabide naturalak. Ustiapen horren inguruan hartzen diren erabakietan, gobernauk komunitateetako ordezkarien parte-hartzea erraztuko du.

KOLONBIAKO ERAKUNDE PUBLIKOEN ERANTZUNAK

Caucako Herriaren Defentsa Erakundearentzat argi dago 1986. urteko akordioak ez direla betetzen. Erakunde horrek eta Poliziako Giza Eskubideen Aldeko Unitateak babeslekuaren egoera aztertzen lagundu zioten Suarezko epaileari, Hondurasko eta Cerro Tijerasko kabildoek Konstituzio Gortean ezarritako babes-ekintzaren ondorioz.

Babes-neurriak hartzeko ikuspegiei dagokienez, jakinarazi digu Cerro Tijerasko Kabildoan Babeserako Unitate Nazionalak (UNP) hitzarmen bat duela Cauca Iparraldeko Kabildo Indigenekin (ACIN) guardia indigenaren logistika indartzeko.

Armadaren 29. Brigadak, berriz, uste du Kolonbiako gobernuak, Suarezko alkatetzak eta armadak ezin izan dituztela 1986ko akordioak bete, FARC taldeak eragotzi egin duelako inguruan makinak eta ingeniari militarrek sartzea.

Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordea

"Ez dadila gal memoria, herrien memoria"

Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordea (CIJP) giza eskubideak babesten dituen erakundea da. Gatazka armatuak dauden lekuetan, afrikar etorkiko, mestizo- eta indigena-komunitateen eta erakundeen prozesuetan laguntzen du, beren eskubideak indarkeriarik erabili gabe aldarrikatzen dituzten kasuetan. Horretaz gainera, babesa ematen die egiaren, justiziaren eta erreparazioaren bila ari direnei eta barne-gatazka armatuari irtenbide negoziatua eman nahi dietenei.



Euskal Ordezkaritza, Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordekoekin eta laguntzen dituzten komunitateetako kideekin (Popayan, Cauca)

TESTUINGURUA

Bake-prozesua

CIJPek baikor hitz egin digu negoziazioez, eta ordezkaritzarekin partekatzen dute prozesu historikoaren ibilbide historikoa eta analisia.

Alvaro Uribe Velez gobernuan zela, Estatu Batuen laguntzarekin, Kolonbian "demokrazia-segurtasun" politika ezarri zen; hots, atzerriko inbertsioa ziurtatzeko helburuz, herritarrak sozialki kontrolatu ziren. Kolonbia Plana hamabi urtez garatu eta gero, gobernuak ikusi zuen terrorismoaren aurkako borroka ez zela bide militarren bitartez denbora gutxian konponduko. Era berean, arrisku giroa zegoen; izan ere, erauzketa-azpiegiturekiko sabotaje-ekintzek eragina zuten atzerriko inbertsioetan. Inbertsioak indartzeko, beraz, garbi ikusi zuten beharrezkoa zela gatazka armatuaren aurkako estrategia aldatzea. Hala, Kolonbiako Gobernuak norabide aldatu zuen, eta Habanan bake-elkarrizketak hasi zituen.

Munduko Bankuak lau kontu ezartzen ditu Kolonbian inbertsioa bideragarria eta erakargarria izan dadin: Biktimak daudela aitortzea herrialdeak kanpoan duen irudia hobetzeko; lurren jabetza formalizatzea, enpresek segurtasun juridikoa izan dezaten beren intereseko kontuetan; landako jendeari parte hartzen uztea politika publikoko eztabaidan; eta atzerriko inbertsioa ziurtatuko duen legedia prestatzea.

Beraz, antzekotasunak daude Munduko Bankuak ezarritako premisetan eta bake-elkarrizketetan lantzen ari diren kontuetan. Gauzak horrela, elkarrizketak bideratuta egongo

lirateke behar diren baldintzak sortzera herrialdean atzerriko inbertsioa ziurtatzeko eta laguntzeko. Dena den, eztabaida ezina da agendako oinarritzko puntuak Kolonbiako indarkeriaren egiturazko zergatien dagozkiela. Gaur egun, adostasun batzuk lortu dira ardatz hauen inguruan: *Lurra eta lurraldeak* eta *Parte-hartze politikoa*²¹, eta hori aurrerapauso nabarmena izan da. Hala ere, ez dira jorratu arazo horien sakoneko gaiak —Adibidez, lur-bankua sortzea, nekazarien artean banatzeko—.

Munduko Bankuaren ildoari jarraituta, Juan Manuel Santosen agintearen hasierazko diskurtsoan aldatu zen, onartu baitzuten herrialdean gatazka armatua zegoela. Nazioartean eman duten irudiari begiratuta, gobernu errepublikano batetik liberal batera pasatu da. 2011n, biktimei eta lurralde itzultzeari buruzko 14/48 Legea argitaratu zen. "Fede oneko tranpa" esaten zaion horren ondorengoa izanik, beharbada itxaropena gordetzeko modukoa izango da lurraldean gogor eusten dutenentzat, baina ez gainerakoentzat.

Incoder²², gainera, bereizketa-politika ari da egiten indigenen, afrikar etorkikoen eta nekazarien komunitateen artean, beste batzuk bizi diren lekuetako lurren tituluak emanda —adibidez, indigenei emanda nekazarien edo afrikar etorkikoen komunitateenak diren lurraldeak—.

Negoiazio-mahaira ELN sartzea eskatzen dute; hala ez bada egiten, gatazka beste hamar edo hamabost urtean iraungo duela iragartzen dute, eta koka hostoez elikatzen jarraituko dutela; gainera, armada eta armamentua indartuko lirateke... Ondorioz, giza tragedia etorriko litzateke, eta landa-giroa ezinezko bihurtuko luke. Elkarriketetan gizarte zibilak parte hartzeko eskatzen dute; izan ere, militarrek eta paramilitarrek parte hartzen dute. Komunitateek ekimen eta proposamen asko dituzte. Ezinbestekoa da elkarri entzutea eta politika publikoetan sartzea (hezkuntza, osasuna). Eta Egiaren Batzordea sortzeko eskatzen dute.

CIJPe badu esperantza. Eta bide horretan ezinbestekoa da memoria eraikitzea. "Ez da tragedia bat soilik. *Ez dira hildakoak bakarrik*. Gazteen etorkizunerako omenaldia da".

Lagundutako prozesuak

CIJP Kolonbiako 32 departamenduetatik zortzitan dago. Laguntzen dituen prozesu eta komunitateen artean daude, besteak beste: Justizia Jauregitik desagertutako pertsonen familiakideak; Cacarcatik ihes egindako familiak - Cavidaren Autodeterminazioaren, Bizitzaren eta Ohorearen Komunitatea; Bajo Atratoko (Cacarica, Curvarado eta Jiguamiando), Perla Amazonikako (Putumayo) eta Bajo Calima arroko (Buenaventura udalerria) prozesu komunitarioak.



Bilera, Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordeak lagundutako prozesuekin (Popayan, Cauca)

Giza eskubideak babesten CIJPe egin duen lana dela medio, horko kideek jazarpena eta mehatxu larriak jasan dituzte. Besteak beste honelako lanetan aritu dira: talde paramilitarren ekintzen aurkako leku aldaturakoei lurralde itzultzeko eta lurraldea babesteko prozesuetan laguntzen eta ekintza horien aurkako Giza Eskubideen Aldeko Amerika Arteko Sistemaren salaketak jartzen.

Caucako departamenduan, CIJPe indarkeriarik gabeko erresistentzia-prozesu komunitarioak laguntzen ditu, merkaturatzeen eta lurren pribatizazioaren aurka egiteko. Horren ondorioz,

²¹ Orain berriro, lortu dira akordioak *Legez kanpoko drogen arazoaren konponbidea* puntuan ere.

²² Landa Garapenerako Kolonbiako Institutua

hainbat kontrol-erakunderen seinatzeak, mehatxuak eta estigmatizazioak jasaten ditu tokian egoten den taldeak. 2013ko lehen hiruhilekoan, besteak beste bi atentatu, hemezortzi beldurrarazte-ekintza, bulegoen eta etxebizitzaren jazarpenera eta zaintza jasateko, eta deiak eta posta atzeman zizkioten.

Euskal Ordezkaritzak zuzenean ezagutu zituen CIJPei Cauca, Caucaoko haranean eta Putumayon laguntzen dituen prozesuak.

CAUCAKO DEPARTAMENDUA

Inza

Komunitateak gazteen egoera salatzen du; izan ere, armadak exekuzio estrajudizialean hiltzen ditu. CIJPei laguntzei esker, agerian gelditu da militarrek hil zituztela 16 urteko Hortensia Neyid Tunja Cuchumbe eta 23 urteko Manuel Antonio Tao Pillimue, eta lortu da epaitegi batek Cacique Pigoanza batailoia behartzea familiari eta komunitateari barkamena eskatzera agerraldi publiko batean, exekuzio estrajudizialean hil baitzituzten bi gazteak. Ekintza horretan bertan larriki zauritu zuten 24 urteko William Cunacue gaztea ere. Zabalik dago erantzuleen aurkako prozesu penala.

2013ko urtarrilaren 17an, Carmen del Morango bidezidorrean, Vivora baserrian, 19 urteko Wilder Eduardo Olave nekazaria hil zuten estrajudizialki. Une hartan, egurra biltzen ari zen etxeko baratzean. Leku hartatik hurbil zegoen Jose Hilario Lopez batailoia, armadako 29. Brigadari atxikia. Bertsio ofizialean dator borroka izan zela gerrillarekin, baina gerrillak ez dira ibiltzen inguru haietan.

Gertaera hura amak berak kontatu zien Euskal Ordezkaritzako kideei, eta semearen hilketatik egia eta justizia eskatu zituen.

Komunitateak gatazka gainditzeko lanean dihardu, indarkeriarik gabeko bizitza duin bat eraikitzearen alde. Hala, *Casa de la Memoria*, *refugio del saber* gazteentzako trebakuntza-zentro bat da, eta *Gruta de la Vida*, berriz, Hortensiaren eta Manuelen oroimen-monumentua.

Argelia

2007an ingurua militarizatu zen. 300 pertsona inguru hilketen eta desagertuen biktima izan zirela uste da, eta 3.000 inguru bortxaz lekuz aldatzera behartu zituzten 2008ko apirila eta ekaina bitartean. Familiak lurraldera itzultzen ari dira inolako bermerik gabe, eta gai horren inguruan erakundeak hartzen ari diren neurriez galdetzen diote beren buruari. Salatu dute gerra giroan emakumeen kontrako sexu-indarkeria eguneroko errealitate bilakatu dela.

2008an, Aguilas Negras delako talde paramilitarrak eraso egin zuenean, lau nekazari desagertu ziren San Juan de la Guaduan (Elder Daza Bolaños, Armando Ceron, Gerardo Hoyos Muñoz eta Henry Gaviria). Nekazariak badakite non dauden gorpuak lurperatuta eta Desagertzeen Unitateari eta Fiskaltzako Giza Eskubideei prozesua bizkortzeko eta horiek lurpetik ateratzeari ekiteko eskatzen dute, familiek haien dolua egin ahal izan dezaten.

2009ko azaroaren 12an, Meson Alto korrejimenduan beste lekualdatze bat gertatu zen, eta aldi hartan, beste bi nekazari desagertu ziren (Over Erney Muñoz eta Jesus Oleyver Alvarado Muñoz).

Armadak herriak eta eskolak hartu zituen, eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren (NZH) arautegia hautsi zuen. Herritarren kontrako seinatzeak eta jazarpenera egin zituzten. Abenduaren 11n, Argeliako Batailoiko Fernando Gutierrez Perdomo teniente koronelak adierazi zuen Luz Nelly Meneses gerrilla-laguntzailea zela. Luz Nelly

Meneses 2008an desagertutako lau horietako baten emaztea da, eta CIDHK ezarritako erresalbuzko neurrien onuradunetako bat. Horrelako ekintzekin, gainera, pertsonen berbiktimizazioa gertatzen da. Luz Nelly Menesesi eta erresalbuzko neurrien onurak jasotzen dituzten beste 29 familiari laguntzen die CIJPeK.

Komunitateak kezka adierazten du Brazo Seco urtegiaren eraikuntzari buruz. Multinazionalak lurraldean sartzeak beti dakar berarekin lurren militarizazioa eta paramilitarizazioa, eta horrekin, baita indarkeria areagotzea ere. Salatu dute Afrikarren komunitateei ez zaiela inolako galdeketarik egin alde zurretik, eta ustiapena zein enpresari eman zaion jakitea eskatzen dute.

Toribio

Interes geoestrategikoa duen ingurunea da, Kolonbiako mendebalde eta Andeatako ingurunea lotzen dituen korridorea delako. Lurraldean hainbat interes ekonomiko daude: ura, urrea eta azukre-kanaberaren monolaborantzarako lurrak, nasen lurraldearen muga inguratzen dutenak. Argeliako udalerriarekin batera, gatazka armatuak indar handiena duen lekuetako bat da.

Militarizazioari aurre egiteko, San Frantziskoko Babeslekuan, nasa herritarrak bizi diren Ullucos baserrian, *Nasen Topaketa, Autonomia eta Erresistentzia Gune* izendatu dute ingurua. Estrategia hori komunitatearentzako babes-mekanismo bat izan da eta da, eta lurraldeari eusteko modu bat; hala, gatazka armatua dagoen leku batean herritar zibilak bereizteko printzipioa eskatu ahal izan dute.

Sucre (Kolonbiako mendigunea)

Departamenduaren hego-mendebaldean dago, eta hainbat labore lantzen dituzte: banana, yuka eta kafea. Ez da koka-ingurua, ezta erakunde armatuentzako korridore erakargarria ere. Hala ere, ahalmen hidriko handia du, eta horrek ateak zabaldu dizkie meategien kontzesioei. Sektore armatuak interes handia du bertako administrazio-boterea eskuratzeko; hala, meategien ustiapena eta uraren pribatizazioa legeztatuko lukete eta. Han daude talde armatu guztiak (FARC, ELN, armada eta paramilitarrak).

Bienandante nekazarien elkarte udalerriri buruko ubide komunitarioa berreskuratzen aritu da, eta, oro har, ura babesteko lanean. Erakundea mehatxatu eta seinatu egin dute gerrillari laguntza emateagatik. Polo Democrático Alternativo alderdiko zinegotziari ere jazarri zioten; Gilberto Dazari, hain zuzen. Lider ezaguna eta erakunde komunitarioekin harremana zuena zen. Ura pribatizatzearen eta meatze-ustiapenen aurka agertu zen, eta ingurumena errespetatzeko eskatu zuen.

Abenduaren 28an, etxean hil zuen Daza sikario batek, emaztearen eta hiru seme-alaben aurrean, armadaren goi-mendietako 29. Batailoia eta Polizia hirigunean egon arren.

Komunitateak zalantza jartzen du indar publikoek udalerrian duten babesteko zeregina; izan ere, ezagunak ziren zinegotziaren aurkako mehatxuak. Udalerrria kezkatuta dago pribatizazioagatik eta baliabideen ustiapenagatik, eta neurriak hartzeko eskatzen du Gilberto Dazaren hilketaren arduradunak epaitu eta haren familia eta udalerrria bera babesteko; alderdi hartan gatazka areagotu denez geroztik, beldurrez bizi baitira.

CIJPeK bi nekazari-elkarterekin lan egiten du (Bienandante eta Huerto Renacer). Elkarte horiek indartzen ari dira beren antolamendua, eta natura babesteko eta mantentzeko neurriak ari dira hartzen, lurrak biodibertsitate eremu deklaratu —animalia eta landare espezieen iraupenerako, berreskurapenerako eta berritzaerako gune: basoak, elikagai-haziak, lore apaingarriak...—. El Arca eta Huerto Renacer leku sinbolikoak dira,

eta haietan uko egin dio komunitateak mineral-erazketei (urrea) eta ubide komunitarioak pribatizatzeari.

CAUCAKO HARANAKO DEPARTAMENTUA

Naya ibaiaren arroa

Caucako departamenduaren eta Caucaoko haranaren artean dago. Naya ibaiaren arroa interes handiko ingurunea da, meatze-aberastasunagatik eta biodibertsitateagatik, baina gero eta kontrolatuago dago, bai ekonomikoki bai militarki, Buenaventurako portutik hasita, hura baita ingurura sartzeko bide nagusia.

Herritarrak gero eta bortitzago sumatzen dute gatazka; han, militarrek, paramilitarrak eta gerrillak (FARC-EP) daude, eta salatzen dute herritarren segurtasuna arriskuan jartzen dutela, informatzailearena egitera behartzen dituztelako.

Naya ibaiko Komunitate Komunitario Beltzeko Batzordeak gatazka bizi du lurraldetasunagatik. 1999an, lurralde kolektiboetako 200.000 hektarearen jabetza eskatu zioten Incoderri²³, 300 urte baino gehiago bizitzen daramatelako han. Gaur egun, oraindik ez dute jaso eskariaren erantzunik. Caucaoko Unibertsitatea izendapen hori ematearen aurka dago. Dioenez, eskulangileen meategiak izan dira han betidanik, eta, 1827ko dokumentu kolonial batean ageri denez, unibertsitateari eman zizkioten, meatze-ustiapenaren bitartez bere burua finantzatzeko.

2001ean, Kolonbiako Autodefentsa Batuetako (AUC) Calima Fronteko 500 gizonen eraso paramilitar batean, 200 nekazari baino gehiago hil, torturatu eta bortxatu zituzten, armadako Pichincha Batailoien Hirugarren Brigadaren laguntzarekin. 3.000 pertsona inguru lekualdatu ziren. Horietako askok hirietan daude oraindik, eta esketik bizi dira. "Nayako sarraskia" lurraldean azken denboran izan den basakeriarik handiena gertatu da.

Ever Veloza, *HH* ezizenekoa, Calima Blokeko buruzagia, Justizia eta Bakea Legearen barruan deklaratu duen buru paramilitarretako bat izan da. AEBetara estraditatu zuten droga trafikoko delituengatik Kolonbiako sarraski hartako eta beste zenbaitetako egile intelektualen izenak esaten hasi zenean. Biktimentzat, irain handia izan da hori, eta traba da egiarako, justiziarako, erreparaziorako eta berriz errepikatuko ez delako bermea izateko.

Komunitateak salatzen du 2008tik aire-fumigatzeak egiten direla glifosatoarekin legez kanpoko laborantza suntsitzeko aitzakian, baina fumigatze horiek etengabeak direla eta haien sostengua/janaria ere bukatzen ari dela. Esan dute CVC ez dela ari ingurumen-eskumenak betetzen.

Esan digute multinazional askok lurraldea begiz jota dutela meatze- eta energia-potentzial handikoa delako. Hala, Goi Nayan base militar bat jartzeko proiektua dago, eraiki asmo duten urtegia eraikitzeke orduan babesia izan dezaten; ez dute kontsultatu urtegi hori egin ote dezaketen. Gainera, enpresa horien iritsiera eta armadarena eta beste indar armatu batzuen zuzenki lotuta daude; geroztik, giza eskubideak larriki ari dira urratzen.

Sarraskiak eta hilketak argitzea eskatzen dute, eta horien egile material eta intelektualak epaitzea. Eta haien lurren jabetza kolektiboa aitortzea nahi dute.

Komunitateak 11 babesleku humanitario eraiki ditu Naya ibaiaren arroan, gatazka armatuaren erdian herritar zibilak babesteko.

²³ Landa Garapenerako Kolonbiako Institutua

Trujillo

Trujillon komunitate nekazari mestizoak bizi dira. Familiakoek eta erakunde humanitarioek diotenez, 1988 eta 1994 bitartean, hilketen, torturen eta bortxazko lekualdatzeen 342 biktima izan ziren. "Trujilloko sarraskia" esaten diote. 1995 eta 1998 bitartean, barealdia izan zen, baina berri indartu zen Alvaro Uribe Velez gobernuaren garaian, herrialdean paramilitarismoa nagusi izan zen garaian²⁴.



Bi kontu garrantzitsurengatik da ezaguna. Lehenik, CIDHK erresalbuak neurri kolektiboak eman zizkion aurreneko kasua izan zen; batetik, egindako krimenen dimentsioagatik eta basakeriagatik, eta, bestetik, ondo dokumentatuta egoteagatik. Bigarrenik, Kolonbian egiaren batzorde batek lortu duen lehen prozesua izan da. Orduko presidente Samperrek barkamena eskatu zuen publikoki, eta sarraski hartan estatuak erantzukizuna izan zuela aitortu zuen.

Gaur egun, oraindik, martxan dira alderdi hartan indar publikoak eta Los Rastrojos talde paramilitarrak. Komunitateak salatu du haurrak errekrutatzen dituztela, eta, hori ez gertatzeko, lekuz aldatzea pentsatzen ari dira.

Kolonbiako Smurtif Kappa Carton enpresa multinazionala pinu- eta eukalipto-monolaboreen eremu zabalak landatzen ari da. Nekazarien lurak errentan hartzen ari da —ez erosten—, jakinda mota horretako zuhaitz-basoek lurak agortu egiten dituztela. Nekazariak enpresaren esku-langile izatera igarotzen dira, eta nekazari-identitatea galtzen dute.

Gainera, inguru horretan badira interes gehiago ere. Alde batetik, interes hidrikoa dago, eta horrek Caceres ibaiaren pribatizazioa ekar dezake. Beste alde batetik, Choco inguru menditsura joateko korridorea da, eta han erraz mugitzen dira paramilitarrak udalerritik udalerrira.

Conpaz sareari (Lurraldeetan Bakea Eraikitze Komunitate Sarea) eta Asoaesca elkarteari (Esther Capayu elkarte agroekologikoa) laguntzen ari da CIJP.

Conpazek lurra eta bizitza zaintzeko eta babesteko eremu izendatu ditu bi alderdi, eta eskaera egin die Errepublikako Presidenteari, FARC-LP eta ELN gerrillei eta gizarteari egiaren batzordea sortzeko.

Asoaescaren proposamena da ekoizpen agroekologiko alternatiboari heltzea eta basoak suntsitzeko politika alde batera uztea. Haren asmoa da arbasoen erreite-jakintzak eta -praktikak berreskuratuta nekazari-identitateari eustea.

Behe Calima (Buenaventura)

Ekonomia- eta azpiegitura-proiektuak inplementatzeko interes geostrategikoa duten lurraldeetan egonik, komunitateek bortxazko lekualdatzeak jasan behar izan dituzte egitura paramilitarengatik.

²⁴ Memoria y Dignidad. *Avanzando procesos de verdad, justicia y reparación integral en Colombia.*

Santa Rosa de Guayacango Nomaan komunitate indigena biodibertsitate humanitarioaren gune batean bizi da. 2010eko maiatzean lekualdatua izan zen, eta 2011ko irailean lurraldera itzuli ziren (inolako bermerik gabe).

CIJPen laguntzarekin, komunitateak hainbat eskari egin dizkio Kolonbiako Gobernuari: lurra ematea, zabaltzea eta sanotzea eta giza eskubideak eta burujabetza errespetatzea (hezkuntza, osasuna eta gobernu propioa). Eskari bakar batek ez du erantzunik jaso oraindik.



2013an bonbardaketak gertatu dira, eta, legez kanpoko erabilerarako laborantzak dauden aitzakian, aire-fumigatzeak ere egin dituzte glifosatoarekin. Cauca Haraneko Eskualdeko Korporazio Autonomoak (CVC) bere ingurumen-betebeharrak betetzen ez dituela salatzen du komunitateak.

Komunitateek erresistentzia- eta babes-estrategiak eratzen dituzte lurraldeari eusteko. Santa Rosa de Guayacan Komunitateak bere lurraldea Biodibertsitate Handiko Ingurumen Babesleku Humanitario izendatu du. Behe Calimako gazteek, berriz, Jubca elkarte osatu dute (Behe Calimako Gazteen Batasuna).

Buenaventurako portua

Buenaventuran, gehienbat afrikar etorkiko jendea dago, eta merkantzia sartu eta ateratzen den nazioarteko portua dauka. Kolonbiako kanpo-merkataritzaren %50 handik igarotzen da. Toki geoestrategikoan dagoenez eta baliabide-erreserba handia daukanez, enpresa-multinazional ugari erakartzen ditu.

Kolonbian bortxazko lekualdatze-indize handiena duen udalerrria da, eta militar eta polizia gehien dituena. Hala ere, herritarrek ez dute sentitzen indar publikoek babesten dituztenik; aitzitik, babesa portuko merkataritza-interesetan jartzen dutela iruditzen zaie.

Zenbaki ofizialen arabera, 2013an, 19.000 pertsona egotzi zituzten beren etxeetatik indarkeriaren ondorioz. Komunitateak esan digu —eta Human Rights Watch giza eskubideen nazioarteko erakundeak hala berretsi du²⁵— talde paramilitarrek jendea desagerrarazi eta zatikatu egin dutela. Gaur egun, Los Rastrojos talde paramilitarrak kontrolatzen du inguru hori —La Empresa ere esaten diote—.

Kolonbiako Fiskaltza Nagusiak azken bi hamarkadetako desagertzeen eta bortxazko lekualdatzeen inguruko 2.000 ikerketa-kasu hasi ditu, baina bakar batek ere ez du zigorrik izan oraindik.

2014ko lehen hiruhilekoan, 56 pertsona hil dituzte Buenaventuran, horietako hamahiru emakumeak. Gainera, beste hamahiru pertsona desagertuta daude. 2013an, Buenaventurako Pertsoneriaren datuen arabera, 187 hilketa gertatu ziren.

Ur sakoneko portua handitzeko *Agua dulce* proiektuaren ondorioz, afrikarren komunitateak etxeetatik bota dituzte itsasontzi handiei sartzen uzteko. Enpresak lurra

²⁵ Human Rights Watch (2013). *La crisis en Buenaventura: Desapariciones, desmembramientos y desplazamiento en el principal puerto de Colombia en el Pacífico*.

privatizatu zituen, eta erabilera tradizionalako 50 arrantxo erre. Palafitozko etxeek —itsasoaren gainean zutabeak jarrita eraikitako zurezko etxeak—, herritarrik pobreenen bizilekuek, desagertu egin beharko dute merkataritza-portua handitzeko asmoa baitute. Horregatik, sektore horietan dago gerra Buenaventuran, egitura paramilitar asko dauden lekuetan.



Eskualdeko enpresa-interesak direla medio, bere lurraldetik botatzeko arriskuan dago Bederatzigarren Kilometroaren Batzorde Komunitarioa, gehiengo afrikarra duen komunitatea. Komunitateek hilketa, desagertze, bortxazko lekualdatze eta mehatxu askoren berri eman digute. Lurrak sanotzea eskatzen dute, eta eragindako kalteengatik ordaina jasotzea. Haien lurrak modu baketsuan babestuz irauten saiatzen dira, eta salatzen dute agintariek eta militarrek ez dietela babesa bermatzen.

PUTUMAYOKO DEPARTAMENDUA

Departamenduan herritar indigenak, afrikarrak eta nekazariak daude. 2000n, 1994ko 168 Legearen bidez, Perla Amazonica Bajo Cuembi nekazarien erreserba sortu zen; Kolonbiako bakarra da.

Uribe presidentearen agintaldian (2002-2010), komunitateak estigmatizatu zituzten, eta zergarik gabeko eremuak sortu ziren²⁶; hala, bide eman zen Amazoniako inguruak ustiatzeko.

Kolonbiako gobernuak petrolio-ustiapenerako emandako baimenek lurren %80 hartzen dute, eta horrek aldez aurreko kontsultaren eskubidea urratzen du, 21 Legean eta OITren 169 Hitzarmenean aitortua. Erauzketa-interesen biktima dira komunitateak, eta asmo txarrak ikusten dizkiote beren lurretan garapenerako egiten dituzten kooperazio-inbertsioei.

Petrolio-ustiapenen ondorioz, lurraldea militarizatu da, 40 base militarrekin —bi edo hiru base, petrolio-gune bakoitzeko—. Gerrilla ere hor dago, eta lurrak kentzearen arduraduna ere bada. Eta gainera, haiekin gatazka areagotu egiten da: hildakoak, bortxazko lekualdatzeak eta buruzagiei egindako mehatxu larriak. Bestalde, Kolonbia Planeko ekintzen barruan, urtean hiru aldiz aire-fumigatzeak egiten dira glifosatoarekin.



²⁶ Zergarik gabeko eremuak estatu baten barruko eremu geografikoak dira; haietan, ondasunen eta zerbitzuen industria-jarduerak edo merkataritza-jarduerak egiten dira, zergen, aduanaren eta kanpo-merkataritzaren araudi berezi baten pean. Toki hauetan sartzen diren merkantziak ez dira hartzen lurraldeko aduana nazionalaren barrukotzat inportazio eta esportazio zergei dagokienez.

Estrategia bikoitza da: lurraldea hustea eta komunitatea bereiztea, gizarte- eta erresistentzia-prozesuak hautsita.

Hego Ameriketako Lurralde Azpiegitura Integratzeko Ekimenaren barruan (IIRSA), Putumayo ibaia bideratu zuten²⁷. Gainera, NAFTA Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Itunaren ondorioz lurraldean hazi transgenikoak sartu izana salatu du komunitateak.

Komunitateek hainbat eskaera egiten dituzte: lurraldean jarraitzeko bermea, antolakuntza-prozesua indartzea, bizi-planak babestea eta petrolio- eta meatze-konpainiarik gabeko lurraldea gisa babestea, bertako haziak berreskuratzea eta gordetzea, lurraldeko minak kentzea eta babeslekuen jabetza ematea, handitzea eta sanotzea.

Euskal Ordezkaritzaren bisita jaso baino astebete lehenago 22 familia aldatu zituzten lekuz.

LAGUNDUTAKO PROZESUEN ERAIKUNTZA-ALTERNATIBAREN ETA ERRESISTENTZIAREN PROPOSAMENAK

Komunitateek betidanik eskatu dute gatazkatik ateratzeko irtenbide negoziatua eta bake iraunkorra eta osoa bultzatzeko leku bat, betiere "armen isiltasunaz" harago joango dena eta epaiketen, kriminalizatzeen, seinalatzeen eta heriotzaren beldur izango ez dena.

Aitortzen dute Caucako Gobernazioa erakundeen ahotsa kontuan izan dezaten presionatzen ari dela baina diote Habanan ez direla entzuten haien aldarrikapenak.

Conpaz (Lurraldeetan Bakea Eraikitze Komunitateak)

Komunitateek eta CIJPe lagundutako prozesuek elkarlanetik sortua da. Ekimen horren helburua da batasunaren prozesua indartzea eta beren lurraldeetan hamalau urtean lantzen aritu diren proposamenak aurkeztea. Topaleku bat da, baita bizia babesteko mekanismo bat ere; hortik, errealitatea ikusi eta proposamenak eta esperientziak partekatzen dituzte.

Eskualdeko eta Kolonbiako zenbait ekitalditan parte hartu dute, eta iritzia eman dute Habanako negoziazio-mahaira proposamenak igortzeko. Kolonbiako Gobernuari eta FARC eta ELN gerrillei herrialde batek bake-eskubide lortzeko duen ametsa ez zapuzteko eskatu die.

Conpazek egiaren batzordea sortzeko apustua egiten du. Proposamena 2000. urtean jaio zen, Cacarican, Kolonbiako 30 erakunde baino gehiagoren topaketan —gaur egun, komunitate-sare horretako partaide dira—. El Salvadorko, Guatemalako, Txileko eta Hegoafrikako biktimen eta giza eskubideen erakundeekin elkartu ziren zigorgabetasunaren mekanismoak eta egia errealaren ukoak aztertzeko. Topaketa horretan, Egiaren Batzorde Etikoa sortzea proposatu zen, eta lan neketsu batean murgildu ziren, beldurra desagerrarazten lagunduko duen ekimen bat martxan jartzeko, biktimak benetan babesteko, bere duintasun-proposamenak indartzeko eta memoria egiteko.

Egiaren Batzorde horrek argitu beharko du ez bakarrik gatazka armatua nondik datorren, baita ere nola urratu diren giza eskubideak, egin diren gizateriaren aurkako delituak, nork bihurtu zuen zilegi indarkeria eta nor aprobeztatu zen hartaz. Biktima guztien ahotsa izan beharko du kontuan, eta haien parte-hartze aktiboa bultzatu beharko du. Bakearen garaia bada, egiaren garaia da; baina egiak ez du justizia ordezkatzeko. Trantsizio justizia egin behar bada, trantsizio demokrazia egin beharko da, eta horrelako demokrazia batek egia eta justizia lortzeko prest dagoen justizia-aparatu independente eta eraginkor bat eskatzen du.

²⁷ Kolonbiako IIRSA proiektuarekin, asmoa da Putumayo ibaian ibiltzeko eta merkataritza-garraioa egiteko baldintzak hobetzea, Amazonia ibaiarekin bat egiten duen lekura arte.

Eskola ibiltari agroekologikoa

CIJPeK lagundutako komunitateen ikaskuntza- berreskurapenerako prozesua: giro sana, arbasoen jakintzak, ekoizpenaren irtenbide ekonomikoa ingurumenari kalterik egin gabe, eta abar. Multinazionalak eragindako kalteen inbentarioa egiten ari dira.

Oinarri egonkor bat dute horretarako: baliabide hidrikoak, lurra eta basoa.

KOLONBIAKO ERAKUNDE PUBLIKOEN ERANTZUNAK²⁸

Brazo Secoko urtegia (Argelia, Cauca)

Armadako 29. Brigadak uste du proiektu horrek kostalderako lurreko bideak irekiko dituela, eta horrek departamenduaren garapena ekarriko duela. Egingarritasun-azterketa egiteko dagoela esan digute.

Herritarren Babeserako Erakundeak, bide beretik, Pazifikoko kostaldeko udalerriek komunikazio-bideak irekitzeko aukera gisa ikusten du proposamena. Erakundeak jakinarazi digu garai batean zentral txiki bat eraikitzeko proiektua bazela eta baliabide eskasiagatik ez zela egin. Gaur egun ez dakigu proiektu hori berriz hartzeko asmorik ote dagoen.

Argeliako udalerrian gorpuak lurpetik ateratzea (Cauca)

Herritarren Babeserako Erakundeak jakinarazi digu prozesu horietan Fiskaltzari laguntzen diotela, baina kasu horretan, gorpuak lurretik ateratzen laguntzeko programarik ez dagoela eta hilobiak non dauden ere ez dakitela.

Gilbertso Dazaren hilketa (Cauca)

Armadako 29. Brigadak esan digu Sucren ELN dagoela eta droga trafikatzeko aritzen dela. Diotenez, armadaren ekintzen ondorioz, baja batzuk izan dituzte lerroetan, eta horrek antolamendua nahasi die zertxobait. FARCEk hori aprobetxatu du inguruan sartu eta droga-trafficokoaren negozioak jabetzeko. Udalerriko alkateak FARCI egozten dio zinegotziaren hilketa, eta agintaritzak gertaera ikertzen ari da.

Polizia Nazionalak adierazi digu El Bordoko Fiskaltza eta Polizia Judiziala (SIJIN) gertaerak ikertzen ari dela eta oraindik ez dagoela esaterik nor izan ziren.

Kolonbiako Fiskaltza Nagusiaren Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren Unitateak zin egin du egindako ikerketen informazioa bidaliko digutela.

Wilder Eduardo Olaveren hilketa estrajudiziala (Inza, Cauca)

Kolonbiako Fiskaltza Nagusiaren Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren Unitateak konpromisoa hartzen du egindako ikerketen informazioa bidaliko digula.

Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordeko kideei egindako mehatxuak

Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren programa presidentzialak esan digu CIDHen eskutik CIJPeKo kideek erresalbuak neurriak jaso dituztela eta, horietatik abiatuta, babeserako hainbat neurri ezarri direla. Arazoak konpontzeko bidean daudela uste dute, eta CIJPeKin komunikazio naturala dutela gehitu: CIJPeKoek aldi-aldi jakinarazten dizkiete laguntzen dituzten komunitateen arazoak, eta instituziotik neurri egokiak hartzen dira.

²⁸ Euskal Ordezkaritza Caucako erakunde publikoekin elkartu zen, eta hemen esaten da zertan den CIJPeK departamendu horretan laguntzen dituen prozesuen egoera.

Kolonbiako Fiskaltza Nagusiaren Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren Unitatea, berriz, CIJPeK jasotako mehatxuak ikertzen ari da Azterketa eta Testuingurua Unitatearen barruan, pertsona berari edo erakunde berari dagozkion mehatxu ugariak batuta eta batera aztertuta.

ONDORIOAK

Kolonbiako Giza Eskubideen Egoera Behatzeko eta Jarraitzeko Euskadiko II. Ordezkaritzak uste du herrialdeak arautegi zabala duela bake justu eta iraunkorra eraikitzen jarraitzeko. 1991ko Konstituzioa Politikoa, biktimei eta lurralde itzultzeari buruzko 2011ko 14/48 Legea eta 46/33 eta 46/35 etnia hitzarmenak aurrerapauso handia dira alde horretatik.

Balioespenak

14/48 Legearen esparruan, ordezkaritzak baikortzat jo du Biktimen Laguntzarako eta Ordaintza Osorako Unitatea, Lurralde Itzultzeko Unitatea eta Memoria Historikoaren Nazioarteko Zentroa sortzea, bakea eraikitzeko giroa sortzeko eta egia, justizia, erreparazio integrala eta berriz gertatuko ez dela ziurtatzeko. Kontziente da herrialdeak lan zaila duela aurrean, neurri batean gatazkak eragin duen eta eragiten duen biktima-kopurua handia delako. Hala ere, prozesuari buruz aipatutako gabezia guztiez gain, norabide horretan aurrera jarraitzea animatzen du, kontuan hartuz genero desberdintasunak eta komunitateen etnia- eta kultura-ezaugarriak. Prozesu horretan biktimen interesak lehentasuna izan beharko du —bereziki komunitate indigenen, afrikar etorkikoen eta nekazarien kasuan, haien bizimodua lurralde lotua doalako—, eta prozesu horiek segurtasun-neurriekin egitea bermatu beharko da.

Giza eskubideen aldeko erakundeek eta Kolonbiako Gobernuak esandakoaren bidetik, balioespen ona eta itxaropentsua egiten du Kolonbiako Gobernuaren eta FARC-EPren arteko elkarrizketa irekiaren prozesuagatik, baita orain berriro ELN prozesu horri atxiki zaiolako ere.

Kezkak

Edonola ere, bere egiten ditu giza eskubideen aldeko erakundeek helarazitako **zenbait kezka orokor**; kezka horiek, gainera, aitortuta dituzte Kolonbiako zenbait erakunde publikoko. Bakerako bidean bi oztopo nagusi daudela uste du:

- Herrialdeko hainbat lekutan herritarrek jasaten dituzten indarkeria- eta inpunitate-maila handiak. Egunero gatazkarekin zerikusia duten indarkeria-ekintzak gertatzen dira (bortxazko lekualdatzeak, atentatuak, desagertzeak, mehatxuak, hilketak).

Beharrezkoa ikusten du, bake-prozesuak martxa ona izateko eta etorkizunean gerraosteko prozesuari egoki aurre egiteko, erakunde armatuek eta, bereziki, Kolonbiako Estatuak —bere erantzukizun legal eta politikoagatik— ahaleginik handienak egitea indarkeria- eta zigorgabetasun maila horiek jaisteko. Alde horretatik, kezka berezia adierazten du Foru Penal Militarra onartzeko aukera dagoelako; izan ere, herrialdean giza eskubideak urratu ondoko zigorgabetasuna sendotu egingo du, eta egia, justizia, erreparazio integrala eta biktimei berriz ez gertatzeko bermea ukatzeko tresna izan daiteke.

- Giza eskubideen defendatzaileen kontrako etengabeko mehatxu eta jazarpenak, zeinak inolako segurtasun-bermerik gabe egiten duten lan. Bake-elkarrizketen hastearekin bat, izugarri gehitu dira jazarpenak. Kezkagarriak dira, era berean, buruzagi sozialen eta komunitarioen aurka oraindik irekita dauden epaiketen inguruko salaketa larriak; besteak beste: ezarritako prozedurak ebazteko denbora asko hartzea eta proben zaintza-katean eta lekukoenean irregulartasunak egotea.

Alde horretatik, jauzi handia dago arautegiaren eta jazarpena eta indarkeria jasaten dutenen babesaren artean.

Aldi Batez Babesteko Programari heldutako pertsonen erakundeen harira, **zenbait kezka espezifik**o helarazten ditu:

- Hondurasko Babeslekuko (Morales, Cauca) eta Cerro Tijerasko (Suarez, Cauca) komunitateek jasaten dituzten mehatxu, jazarpen eta seinatze larriak eta enpresa-

multinazionalak eta haien lurraldeetan dauden talde armatuek eragindako inpaktuak (La Salvajina urtegia).

- Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordeko kideen eta laguntzen dituzten komunitateen kontrako etengabeko mehatxu eta zirikatzak.

Gomendioak

Honako hau gomendatzen diegu Kolonbiako erakundeei:

- 1986ko "Caucako departamenduan La Salvajina urtegia eraikita kaltetu ziren nekazarien eta indigenen komunitateen ordezkariekin hartutako konpromisoen aktan" ageri diren akordioak betetzea, batez ere komunitateek lurraldean barrena osasuna, hezkuntza eta mugikortasun librea izateko aukerarekin zerikusia duten gaitan.
- Hondurasko (Morales, Cauca) eta Cerro Tijerasko (Suarez, Cauca) komunitateekin haien segurtasunerako behar dituzten neurriak zehaztea.
- Ikertzeko, gertaerak argitzeko eta Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordearen beharretara egokitutako babes-neurriak definitzeko ekintzak martxan jartzea, Batzordeko kideek giza eskubideak babesteko egiten dituzten lanak segurtasunez egin ahal izan dezaten.
- Berehala, presaz eta sakon, honako hilketa hauekin harremana duten gertaerak ikertzea eta egile material eta intelektualak zigortzea: Gilberto Daza zinegotzia (Sucre, Cauca), Robert de Jesus Guacheta Hondurasko Babeslekuko ordezeko gobernatzalea (Tierradentro, Cauca) eta Wilder Eduardo Olave (Inza, Cauca).
- Argelian (Cauca) desagertutako lau nekazariren gorpuak lurretik ateratzeko izapideak egitea, familiak dolua egiten hasi ahal izateko.
- Modu erreal eta efektiboan, komunitate indigenei eta afrikar etorkikoei kontsulta librea eta informatua egitea, Konstituzioak eta OITren 169 Hitzarmenak behartzen duten eran, historikoki haiei dagokien lurretan edozein prozesutan hasi aurretik. Bereziki, Brazo Seco urtegiaren proiektuaren kasuan (Argelia, Cauca).

Hala, Euskal Ordezkaritzarentzat, funtsezkoa da giza eskubideen aldeko lana bermatzea, horretarako babes-neurriak hartzea eta erakunde komunitarioen lana aldarrikatzea, oinarritzat baita gizarte demokratikoa, berdintasunezkoa eta giza eskubideek indarrean izango dituen eraikitzeak. Giza eskubideekiko errespetuak zeharkako ardatza behar du izan, irekia eta bake-prozesua eraikitzeak oinarria emango diona, berau gerrarik gabeko egoera hutsa izango ez dela bermatzeko.

Alde horretatik, prozesuan emandako aurrerapauso eta urratsak aitortuta, beharrezkoa ikusten du eskubide zibil eta politikoak gehiago errespetatzea, eredu politiko integratzaileago eta demokratikoago bat eraikitzen laguntzeko. Horrek esan nahi du gizarte zibilari parte hartzeko aukera osoa eman behar zaiola, bake-prozesuan behar bezala landuak izan daitezten sektore guztien proposamenak, salaketak eta interesak —hala nola indigenenak, afrikar etorkikoenak, nekazarienak, biktimenak, feministenak, hiritarrenak—.

Era berean, beharrezkoa da aurrerapenak egitea eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak betetzeko bidean. Horretarako, ezinbestekoa da herritarrek politika ekonomikoen diseinuan eta definizioan leku nagusia hartzea. Era berean, beharrezkoa da konpontzea enpresa multinazionalak lurraldeetan eragindako kalteak —dela meatze- eta energia-baliabideen ustiapenean, dela nekazaritza intentsiboaren ustiapen handietan—; hori izango da lehen pausoa gizakiaren garapen-eredua eraikitzeak eta guztientzako bizitza duina bermatzeko.

Ondorioz, bisitetan bildutako iritziak eta izandako harremanak kontuan izanda eta beste herrialde batzuetako bake-prozesuetan izandako eskarmentua aprobetxatuta, **bi ideia nagusi** azpimarratu nahi genituzke:

- Beharrezkoa da aurrerapenak egiten jarraitzea Kolonbiako legeek eta erakundeek eskaintzen dituzten tresna ugariak aplikatzeko eta eraginkor bihurtzeko. Labur esanda, aurre egin behar zaie herrialdeak giza eskubideen inguruan jasaten dituen arazo ugariari.
- Beharrezkoa da aurrerapenak egiten jarraitzea gatazkaren muina kausatzen duten gaietan eta prozesua zabaltzea beste erakunde batzuei —baita gizarte zibilari ere—; horretarako, erraztasunak eman behar zaizkie Kolonbiako biktimei eta gizarte mugimenduari, beren proposamenak kontuan hartuak izan daitezzen, bidezko bake iraunkorraren oinarriak eraikiko badira.

Espero du *Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programa* sendotu egingo dela eta babes eta eragin politikorako balioko duela, Kolonbiako giza eskubideen aldeko erakundeei haien nazioarteko babes-sareak indartzeko eta, segurtasun-neurri handiagoekin, bakea eta justizia soziala lortzeko lanean jarraitzeko. Alde horretatik, programan parte hartzen duten erakunde publiko eta sozial guztiek arretaz jarraituko dute prozesua, eta babestutako pertsonen eta haien erakundeen egoerei etengabeko jarraipena egingo diete.

Eta, azpimarratu du Kolonbiako komunitateek eta gizarte-mugimenduek ausardia eta duintasuna erakutsi dutela indarkeriarik gabeko erresistentzia-proposamenak eginda eta, egunero, erakunde armatuen tiroen erdian, bizikidetzarako eremuak eraikitzearen alde eginda.



Euskal Ordezkaritza, Eusko Jaurlaritzaren Kolonbiako ordezkariaren bulegoetan (Bogota).